

ERLIJIO-ANIZTASUNA SUSTATZEA EAE-N

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

ERLIJIO-ANIZTASUNA SUSTATZEA EAE-N

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



garai
berriak

BIENKIDTZA ETA
BELAUNALDIEN ARTEKO
ITUNAREN ESTRATEGIA
ESTRATEGIA FAMILIA,
CONVIVENCIA Y EL PACTO
ENTRE GENERACIONES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren
katalogoan aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Edizioa: 1.a, 2026ko apirila

Kopurua: 34 ale

Copyright: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.eus

Egilea: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. Eusko Jaurlaritza.

Diseinua: Logoritmo

Inprimatzea: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

Lege Gordailua: LG G 244-2026

1. TESTUINGURUA	7
1.1. Euskadiko erlijio-aniztasunaren esparru soziologikoa	7
1.2. Eskubide-esparrua	10
1.3. Arau-esparrua	13
1.4. Erlijio-aniztasunaren gobernanzarako joerak	15
2. ESTRATEGIAREN OINARRIAK	19
2.1. Arlo publikoan erlijio-gertakaria ulertzeko printzipioak	19
Erljio beraren baitan ere aniztasun handia egoten da	19
Erljioak aldatuz doaz denboran zehar	19
Erljioak sakon errotuta daude kulturetan	20
2.2. Jarduna bideratzeko printzipioak	21
Berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea	21
Pluralismoa, balio demokratikoa den aldetik	21
Elkarrizketa, hezkuntza eta bizikidetzeta plurala sustatzea	23
Gutxiengoak berariaz babestea	23
Eskubidea mugatzean proportzionaltasun- eta beharrian-irizpideak aplikatzea	24
2.3. Kudeatzeko irizpideak	25
Plangintza eta aurrea hartzea	25
Lankidetzeta eta parte-hartzea	25
Jardun publikoaren unibertsaltasuna	25
3. JARDUN-ILDOAK ETA NEURRIAK	27
3.1. Aurrekariak	27
3.2. Jardun-ildoak eta -proposamenak	28
1. Errealitate sozio-erlijiosoa eta konfesioen ezagutza publikoa	29
2. Administrazioaren eta erlijio-erakundeen arteko harremanak eta elkarrizketa	29
3. Gizarte-ingurunearekiko, auzokideekiko eta komunikabideekiko harremanak	31
4. Kultu-zentroen plangintza eta hirigintza-kudeaketa	32
5. Espazio publikoen eta titulartasun publikoko ekipamenduen erabilera	33
6. Denboraren antolaketa: laneko ordutegia, egutegi zibila eta gurtzarako denbora	34
7. Ehorzketak, hilerrak eta hileta-zerbitzuak	35
8. Elikadura eta erlijio-aginduak	35
9. Jantzkerak eta erlijio-adierazpena eremu sozial eta publikoetan	36
10. Sanitate-alderdiekin lotutako jardunbideak eta ohiturak	36
11. Erlijioen arloko prestakuntza eta alfabetatzea	37
12. Ikastetxeak eta erlijioaren irakaskuntza	38
13. Erlijio-arreta eta gurtzarako lekua zentro publikoetan	38
14. Herritarren segurtasuna eta erlijio-aniztasuna	39
15. Erlijio-askatasuna gauzatzeko eskumenen azterketa	39
3.3. 2026-2029 aldirako lan-egitasmoa	41
4. KONTSULTATUTAKO ITURRIAK	49
4.1. Landa-lana	49
4.2. Bibliografia	50



ERLIJIO-ANIZTASUNA SUSTATZEA EAE-N

Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea onartuta, eta Eusko Jaurlaritzan Aniztasunerako Zuzendaritza sortzearen esparruan, zuzendaritza horrek abian jarri du **Garai Berriak, Bizikidetzeta eta Belaunaldien arteko Itunaren Estrategia**, aniztasunaren kudeaketa publikoarekin lotutako lan-ildo berriak bultzatzeko asmoz, erlijio-aniztasuna barnean hartuta.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioari eskatu dio egin dezala erlijio-aniztasunaren arloko proposamen estrategiko bat, esparru horretan erakundeen ekintza-ildo bat garatu ahal izateko. Proposamen horrek eduki programatikoak eta operatiboak biltzen ditu, eta, haiek garatzeko, berrikusi da zer dokumentazio dagoen lehendik eta erreferentziatzeko zer esperientzia dauden beste autonomia-erkidego batzuetan nahiz Europako hainbat testuingurutan, oinarritzat hartuta literatura akademiko espezializatuaren azterketa. Dokumentuen berrikuspenera osatzeko, landa-lana ere egin da, honako hauek karrizketatuta: Jordi Moreras (Rovira i Virgili Unibertsitatea), Gorka Urrutia (Deustuko Unibertsitatea), Ramon Bassas (Kataluniako Generalitateko Erlijio Gaietarako zuzendari nagusia), Llorenç Olivé (Zuzendaritza Nagusi horretako teknikaria), Inês Mazarrasa eta Puerto García Ortiz (Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioko zuzendaria eta zuzendariordea, hurrenez hurren), eta Arnau Oliveras eta Sergio Arévalo (AUDIR, Associació UNESCO per al Diàleg Interreligiós i Interconviccional). Horrez gain, eztabaida-talde bat sortu da zazpi erlijiotako gazteekin, eta aintzat hartu da zer ekarpen egin dituzten erlijio-komunitateek EAEko Erlijioen arteko Kontseiluaren aurretiko bi saioetan. Era berean, prozesu hori guztia elikatzeke, kontuan izan da 2015eko *Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena* delakoan aurrez jasotako lan guztia. Txosten hori Ellacuria Fundazioak eta Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak egin da, aditu talde baten bidez eta Euskal Autonomia Erkidegoko erlijio-komunitateekiko bilkuretan parte hartuta.

Hemen aurkezten den txostena hiru bloke handitan egituratuta dago. Lehenengoa testuinguruari buruzkoa da, eta hor, biltzen da zer-nolako den bai Euskadiko erlijio-aniztasunaren esparru soziologikoa eta bai nazioarteko nahiz Estatuko esparru juridikoa, eta aztertzen da zein diren erlijio-aniztasunaren egungo gobernantzarako joera nagusiak. Bigarren blokean, estrategiaren oinarriak garatzen dira, arlo publikoan erlijio-gertakaria ulertzeko lagungarriak diren zenbait printzipioren inguruan antolatuta, eta erakundeen jarduna gidatzen duten printzipioak eta zenbait irizpide operatibo ere azaltzen dira, hala nola plangintza eta lankidetzeta. Hirugarren blokean, berriz, jardun-ildoak eta neurriak aurkezten dira, eta 2026-2029 aldirako lan-egitasmoaren proposamena agertuz amaitzen da.



1. TESTUINGURUA

1.1. EUSKADIKO ERLIJIO-ANIZTASUNAREN ESPARRU SOZIOLOGIKOA

ERLIJIO ETA SINESMENEN PAISAIA ALDAKORRA

EAEko biztanleen artean, gaur egun nahiko parekoak dira erlijio-sinesmenak badituztela diotenen ehunekoa (% 42) eta ez dituztela diotenenena¹. Egungo egoeraren argazki hori berretsi egin dute duela gutxi egindako beste ikerketa batzuek ere², eta bere baitan hartzen ditu bai erlijio-dibertsifikazioko prozesu jarraitu bat, bai sekularizazio-dinamikak, eta bai erlijioa bizitzeko moduak beste era batera ulertzea ere.

Hala, Euskadiko erlijioen ikuspegi horrek –azken urte edo hamarkadetan erabateko eraldaketa-prozesuan dagoenak– argi erakusten digunez, gurean ondo sustraitutako sinesmen eta uste sendoekin batera ageri zaizkigu bai gutxiengo erlijioso berriak, bai aldaketak erlijioekiko kidesun- eta atxikipen-eredu instituzional klasikoetan, eta bai espiritualtasun mota berriagoak, malguagoak edo pertsonalagoak.

Espainiako erlijio eta sinesmenei buruzko Barometroaren arabera (2025eko azaroan aurkeztua), nor bere burua erlijioaren arloan nola definitzen duen galdetu denean, EAEko herritarren gehiengoak (% 53) erantzun du ez duela bere burua ezein erlijiori atxikia ikusten: inkestatutako % 13k agnostikotzat jo dute beren burua, % 20k ateotzat, eta % 20k esan dute gai horrek ez diela ardura edo ez-sinestunak direla. Erlijioaren bateko kide sentitzen direla erantzundakoen artean, katolikoak dira oraindik ere nagusi (% 34), eta % 4 beste erlijio-konfesio batzuekin identifikatu dira.

Zifra horiek ez datoz bat, zehatz-mehatz, orain arte jasotakoekin (**ziur asko, laginekin lotutako konturen baten ondorioz**), baina guztiek jotzen dute norabide berean. Ikuspegiren *Zabaldu* txostenak, Euskal Soziometroan oinarrituta, argi erakusten zuen laurogeiko hamarkadaren amaieratik jada etengabe zihola beherantz erlijio katolikoarekiko atxikipena, eta, aldi berean, gorantz zihozela jarrera ez-fededunak. Izan ere, 1987an biztanleen % 81ek jotzen zuten katolikotzat beren burua, baina 2022an % 55era jaitsi zen proportzio hori, eta 2023ko Neurte inkestaren arabera, ez-fededunak gehiago ziren katolikoak baino (% 50,2 eta % 43,6, hurrenez hurren).

Datu horiek, oro har hartua, aukera ematen digute egungo kopuruak beren testuinguruan jartzeko; alegia, ulertzeko, funtsean, sekularizaziorako eta sinesmen moduen dibertsifikaziorako joeraren ondorioz ari direla gertatzen.

Erljio-aniztasun hori gure herrialdearen egiturazko ezaugarria dugu gaur egun, baina komeni da gogoratzea erlijioaren arloan Euskal Herria historikoki ez dela inoiz izan erabat homogeneoa ("*Euskal Herria ez da Erljio bakarrekoa izan*"³), baizik eta kulturen eta sinesmenen bidegurutze bat izan dela⁴.

1 Observatorio del pluralismo religioso en España. (2025). *Barómetro sobre religión y creencias en España (BREC 2025): Informe de resultados*.

2 Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia (2024). *Zabaldu #2: Erljio-aniztasuna EAEn*.

3 Intxausti, J. (2009). *Euskal erlijiotasunaz. Zenbait burutapen historiko*. Hemen. Erljio gogoetarako aldizkaria, (10/12), 7.-22. or.

4 Arregi Olaizola, J., & Canarias Fernández-Cavada, J. (2010). El País Vasco como encrucijada histórica de religiones. In E. J. Ruiz Vieytes (Arg.), *Pluralidades latentes: Minorías religiosas en el País Vasco* (61.-80. or.). Icaria Editorial.

Gaur egun, Euskadiko erlijioen maparen arabera⁵, biztanleen % 6tik 7ra bitartean dira konfesio ez-katolikoetakoak. Esate baterako, biztanleria musulmana % 4,0 da, ebanjelikoa % 1,1, eta ortodoxoa % 1,0. Aniztasun hori adierazten da kultu-lekuen mapan ere (300 baino gehiago zeuden aktibo 2024an, Eliza katolikoarenak kontuan hartu gabe); guztien artean, nagusi dira gune ebanjelikoak (147) eta musulmanak (83).

Aniztasun horren zati bat azken migrazio-fluxuekin lotzen bada ere, erlijio-aniztasuna ezin da ulertu ikuspegi horretatik bakarrik. Atzerritar jatorriko pertsonen artean, badira erlijio minoritarioak dituztenak, eta badira erlijio nagusiarekin identifikatu eta hura indartzen dutenak: % 42,9k katolikotzat dute beren burua, eta ehuneko esanguratsuak dituzte musulmanek (% 17,9), ebanjelikoek (% 9,8) eta ortodoxoek (% 8,4).

Aipatu ditugun erlijio- eta sekularizazio-dinamika horiekin batera, ageri dira bestelako espiritualtasun modu batzuk ere. Beste testuinguru batzuetan, herritarren ehuneko esanguratsu batek "espiritualtzat" du bere burua, erlijio-atxikipen tradizionaletatik kanpo (Estatu Batuetan⁶, helduen % 70ek jotzen dute beren burua maila batean edo bestean espiritualtzat, eta % 22k "espiritualtzat bai, baina ez erlijiosotzat"; Katalunian⁷, % 59,4k dute beren burua espiritualtzat, baina ez erlijiosotzat). Datu garrantzitsuak dira, oso kontuan hartu beharrekoak; izan ere, erlijio jakin batekin ez identifikatzeak ez du esan nahi, nahitaez, pertsonak ez duenik sinesmen eta jardun espiritualik.

Euskadin, orain arte ez genuen horri buruzko datu espezifikorik, baina argitaratu berri den 2025eko BREC Barometroak informazio garrantzitsua ematen digu: Euskadin, inongo erlijio-sinesmenetakoak ez diren pertsonen artean, herenak (% 35) uste du egon daitekeela nolabaiteko errealitate espiritual edo bizi-indarren bat, edota naturaren edo ama lurraren ahalmenean sinesten du (agnostikoen artean, % 56k sinesten dute hori). Eta inkestaturako pertsonen % 11k hartzen dute beren burua pertsona espiritualtzat, inolako erlijiotako kide izan gabe.

Oro har, euskal biztanleriak zertan sinesten duen begiraturaz gero, barometro horrek adierazten duenez, ehunekorik esanguratsuenak honako hauetan sinesten dutenenak dira: energietan (% 33), ariman (% 29), heriotzaren ondorengo bizitzan (% 22) eta astrologian (% 19). Sinesmen-patroi horiek egunerokotasunari lotutako espiritualtasun moldeak erakusten dituzte, askotan hibridoak eta desinstituzionalizatuak, eta agerian uzten dute zentzuaren bilaketa aktiboa, erlijio-esparru tradizionaletik harago.

Prozesu horiek baieztatzen dute gizarte garaikideen alderdi aktiboa dela erlijio-gertakaria. Peter Bergerrek sekularizazioaren teoria aztertzean adierazi zuen bezala, modernitateak ez du desagerrarazi erlijioa, baizik eta lagundu egin du erlijioa pluralizatzen, desinstituzionalizatzen eta esanahi berriaz hornitzen⁸.

5 Ikuspegi. (2020). *Euskadiko erlijioen mapa*.

6 Pew Research Center. (2023). *Spirituality among Americans*.

7 Generalitat de Catalunya, Direcció General d' Afers Religiosos i Centre d'Estudis d'Opinió. (2020). *Baròmetre sobre la religiositat i la gestió de la seva diversitat 2020*.

8 En *Los múltiples altares de la modernidad. Hacia un paradigma del pluralismo* lanean, Peter Bergerrek, nazioartean erlijioaren arloan soziologo ospetsuenetakoa denak, adierazten du modernizazioak ez duela ezinbestean ekarri gizartea erabat sekularizatzea, baizik eta kosmobisioen eta balio-sistemen pluralizazioa, eta horiek bitan bereiz genitzakeela: alde batetik, erlijio-aniztasuna, hau da, erlijio-tradizio desberdinen aniztasuna; eta, bestetik, diskurtso erlijioso eta sekularren pluralismoa (alegia, diskurtso sekular bat sortu izana, aukera ematen duena errealitatearen interpretazio erlijiosorik egin gabe bizitzako eremu askori heltzeko, baina ez dakarrena nahitaez hala egiten duten pertsonak fedea eta sekularitasuna bateraezintzat hartzea errealitatea ulertzeko, baizik eta ikuspegi osagarritzat hartzea). Egilearen hitzetan, aniztasuna, gizarte berean kosmobisio eta balio-sistema desberdinak batera egotea, horixe da modernitateak eragindako funtsezko aldaketa erlijioari buruz gizabanakoak duen ikuspegiaren eta erlijioak ordena instituzionalean duen garrantzi-mailan. Sekularizazioarekin lotuta egon daiteke, edo ez, baina hortxe dago, sekularizazioa gorabehera. (...). Mendebaldeko sekularitasuna ez da modernitate modu bakarra, badira erlijioari leku nabarmenagoa ematen dioten beste bertsio batzuk ere. (10.-13. or.).

ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKO PERTZEPZIOAK, ESPERIENTZIAK ETA JARRERAK.

Ikuspegiren 2023ko Neurtu Barometroaren arabera, esaterako, EAEko biztanleen % 76,9k adierazten badute ere gizartean askotariko jatorri, kultura eta erlijio-sinesmenak elkarrekin errespetuz bizitzearen alde daudela, oraindik ere badira tentsio batzuk erlijio minoritarioak onartu eta normalizatzeari dagokionez, eta beste erlijio batzuetako bizilagunekin gertuko harremanak daudenean neurri handiagoan onartzen da bizikidetzeta hori. Inkestatuen % 24,1ek adiskidetasun-harremanak dituzte beste sinesmen batzuetako pertsonekin, baina txostenak azpimarratzen du biztanleriaren zati handi batek oraindik ere badituela estereotipoak eta aurreiritziak —bereziki gutxiengo komunitateekiko, hala nola musulmanekiko—, eta horrek oztupoak dakartzala bai gizarte-bizitzarako bai lan-esparrurako. Gainera, Espainian gorroto-delituek izandako bilakaerari buruzko 2023ko txostenak (Evolución de los Delitos de Odio en España)⁹ agerian uzten du “erlijio-sinesmen edo -jardunei” lotutako arrazoiak eragin zituztela erregistratutako delituen % 2,51.

Illo beretik, 2025eko BREC Barometroak erakusten duenez, Euskadin elkarrizketatutako pertsonen % 32 irainduak sentitu dira beren sinesmenei buruzko iruzkin edo txantxen ondorioz, baina txikiak dira oraindik ere erlijio-arrazoiengatik diskriminazioaren kopuruak (% 5 inguru Estatuan). Horien artean, egoera desberdinak adierazi dira: sinesmenen adierazpen publikoarekin lotutakoak (% 6) eta, neurri txikiagoan, sinesmenek ez izatearen adierazpenarekin lotutakoak (% 3), edota lan- eta hezkuntza-esparruko zailtasunekin lotutako egoerak, hala nola ukatzea egutegian jai edo konpromiso erlijiosoetarako doikuntzak egitea (% 2) eta aukerarik ez izatea norberaren sinesmenekin bat datorren elikadura izateko (% 2).

Era berean, nahiz eta azken urtean biztanle gehienek ez duten izan beren erlijioaren ondorioz gorabeherarik, gutxiengo erlijiosoek gehiago sufritzen dituzte halako egoerak. Euskadin gorabeheraren bat sufritu duen % 3 horretatik, % 8k adierazi dute jaso dituztela iruzkin edo keinu iraingarriak; ehuneko hori % 25erainokoa da katolikoa ez den sinesmenetako pertsonen artean.

ERLIJIO-ANIZTASUNAREN KUDEAKETA

2025eko BREC Barometroaren arabera, erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoarekiko EAEko biztanleek erakutsitako jarrerak adierazten dute gehienek babesten dituztela sinesmen pertsonalekiko errespetua bermatzeko ezarritako neurriak. Neurri horien artean, hiletak pertsonalizatzeari buruzkoa nabarmentzen da (% 64), hau da, pertsona guztiak beren sinesmenen arabera hilobiratu ahal izateari buruzko adostasuna. Hileta-guneak (otoitz-gelak eta beilatokietako nahiz hilerrietako zeremoniak) edozein erlijio-tradiziotara egokitu ahal izateari buruz ere nahikoa adostasun dago (% 57), bai eta komunitate guztiei beren kulturekuak ezartzeko eskubidea aitortzeari buruz ere (% 52). Aldiz, eskola-menuak erlijio-beharretara egokitzeak sortzen du eztabaida gehien: % 44 baino ez dira alde ageri, eta horrek eragiten du herritarren artean desadostasun handiena.

Hezkuntzaren esparruan, Euskadin, nabarmena da gehiengoa dagoela eskola publikoan erlijio-irakaskuntza ematearen aurka (% 62), eta askok eta askok babesten dutela inolako orientazio konfesionalik gabe ematea ikastetxeetan erlijioen historiari eta kulturari buruzko irakaskuntza (% 48k jotzen dute hori oso edo nahiko garrantzitsutzat, eta % 20k soilik uste dute ez dela garrantzitsua).

⁹ Barne Ministerioa. (2024). *Informe sobre la evolución de los delitos de odio en España 2023*.

1.2. ESKUBIDE-ESPARRUA

Erljio-aniztasunaren kudeaketa publikorako, oinarritzat hartzen da giza eskubideen esparru ondo finkatua; esparru horretan, hain zuzen ere, oinarritzko eskubidetzat jotzen da pentsamendu-, kontzientzia- eta erljio-askatasuna, bai eta gizarte demokratikoen egiturazko elementutzat ere. Nazio Batuek, UNESCOk, Europako Kontseiluak, Europar Batasunak eta Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundeak (ESLA) onartutako tresnak bat datoz hiru ideia nagusitan:

- Erljio- edo sinesmen-askatasunak era berean babesten ditu pertsona fededunak zein fededun ez direnak.
- Erljio-arrazoiengatiko bereizkeria ez da bateragarria zuzenbide-estatuarekin.
- Erljio-aniztasuna kudea daiteke bizikidetzat demokratikorako baliabide gisa, eta halaxe kudeatu behar da.

A) PENSAMENDU-, KONTZIENTZIA- ETA ERLJIO-ASKATASUNA

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 18. artikulua (NBEren Batzar Nagusia, 1948) adierazten duen bezala, pertsona orok du pentsamendu-, kontzientzia- eta erljio-askatasunerako eskubidea, barnean hartuta askatasuna dutela bai erljioz edo sinesmenez aldatzeko, bai norberaren erljio edo sinesmenak agertzeko, banaka nahiz taldean, edo jendaurrean nahiz esparru pribatuan, dela kultuaren bidez, dela irakaskuntzaren eta erljio-jardunen nahiz -jardunbideen bidez.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 18. artikuluan garatzen da hori (NBE, 1966, 1976tik indarrean); hain zuzen, horretan funtsezko bi elementu gehitzen dira:

- alde batetik, bereizi egiten du erljio edo sinesmen bat edukitzeko edo bereganatzeko barne-askatasuna, erabateko askatasuneko eremu bati dagokiona, injerentzia orotik kanpokoa, hau da, bortxaezina dena eta murrizketarik onartzen ez duena;
- eta bestetik, argitzen du erljio-askatasuna ez dela mugatzen barne-dimentsio horretara, baizik eta barnean hartzen duela erljioa agertzea, banaka nahiz taldean, esparru publikoan nahiz pribatuan. Erljioaren dimentsio praktiko eta publiko horrek hainbat adierazpide ditu: kultura, errituak, zeremoniak, janzkera, jaiak, elikadura-arauak, sinboloak, asteko atsedeen-eguna, erljio-hezkuntza. Erljioaren adierazpen horiek ezin dira mugatu salbuespenezko egoeretan baino: lege argi batek horretarako baimena ematen duenean (hau da, mugaketa ezin da oinarritu erabaki diskrezionaletan, barne-jarraibideetan, zirkularretan, gizarte-presioetan edo interpretazio zabaletan), neurria behar-beharrezkoa denean gizarte demokratiko batean¹⁰, eta zenbait alderdi babesteko soilik: segurtasun, ordena, osasun eta moral publikoak (partekatutako gutxieneko balioen babesa) edo beste pertsona batzuen eskubideak eta askatasunak. Estandar horrek eragotzi egiten du murrizketarik ezartzea kultura-lehentasunetan oinarrituta, edo gizarte-presioetan nahiz gehiengoaren identitate-ikuskeretan oinarrituta.

22. Ohar Orokorrak (Giza Eskubideen Batzordea, 1993) argitzen du eskubide horrek honako hauek babesten dituela:

- sinesmen teistak, ez-teistak, eta sinesmenik eza ere bai;

¹⁰ Adierazpen horiek mugatzeko baldintzetako bat da neurri hori behar-beharrezkoa izatea gizarte demokratiko batean, eta horrek esan nahi du ez dela nahikoa neurria erabilgarria, komenigarria edo sozialki desiratua izatea: frogatu behar da ezinbestekoa dela 18.3 artikuluko bidezko helburuetako bat babesteko (segurtasun eta ordena publikoak... babestea), eta ez dagoela beste aukerarik, hain murriztailea ez denik. Gainera, demokraziari lotutako irizpidea aintzat hartuta, mugaketek errespetatu egin behar dute Estatuaren pluralismoa, berdintasuna eta neutraltasuna, eta saihestu egin behar da inolako murrizketarik egitea, dela gehiengoaren lehentasun kulturetan oinarrituta, dela deserosotasun sozialean edo identitatearen ikuskera homogeneoetan oinarrituta.

- erlijioz edo sinesmenez aldatzeko aukera;
- eta sinesmenei lotutako jarduerak (jaiak, erritualak, sinboloak, erlijio-janzkera, atsedene-eguna, etab.).

Azpimarratzen du inor ezin dela behartu erlijio bat izatera edo bere erlijioa alde batera uztera, eta estatuek ezin dutela babestu erlijio bat beste baten gainetik, ezin dutela inposatu sinesmenik edo jardunik, erlijio ofizial bat egoteak ezin duela eragin bereizkeriarik, eta ezein komunitate ezin dela tratatu mendekotzat.

Europar Batasuneko Oinarritutako Eskubideen Europako Hitzarmenaren (Europako Kontseilua, 1950) 9. artikuluan ageri dira printzipio horiek; hor, ia eduki bera errepikatzen da (pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea; erlijioz edo sinesmenez aldatzeko eskubidea; banaka eta taldean adierazi ahal izatea, esparru publikoan nahiz pribatuan), eta balizko mugaketen araubide bera ezartzen da, nabarmenduta gizarte demokratiko baten legeen eta beharren mende egon behar dutela.

Europar Batasuneko Oinarritutako Eskubideen Gutunaren 10. artikulua ere (EB, 2000) jasotzen du eskubide hori, eta esplizituki sartzen du kontzientzia-eragozpene aitortzea, nazioko legeekin bat. Gainera, 22. artikuluan, adierazten du nahitaez errespetatu beharra dagoela kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna, eta indartu egiten du Europako kohesioaren egitura-elementutzat hartzea aniztasuna.

Era berean, Europako Parlamentuaren 1999ko Adierazpenak, Erlijioak kulturen arteko elkarrizketari egiten dion ekarpenari buruzkoak, berariaz aitortzen du erlijio-tradizioek aktiboki eragin dezaketela gizarte-kohesioa eraikitzen eta Europar Batasunaren proiektua indartzen, azpimarratuta zeinen garrantzitsua den askotariko sinesmenen arteko elkarrizketa eta lankidetzak.

Oro har, testu horiek xedatzen dute pensamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna oinarritutako eskubide bat dela, botere publikoek modu eraginkorrean bermatu beharrekoa, hala gehiengoarentzat nola gutxiengo erlijiosoentzat eta fededun ez direnentzat.

B) ERLIJIO-ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIOAREN ETA INTOLERANTZIAREN DEBEKUA

Erlijioan edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpenak (NBERen Batzar Nagusia, 1981) garatu egiten du eskubidearen edukia, eta bereziki erreparatzen dio diskriminaziorik ezaren dimentsioari. Adierazten du ezin dela inor diskriminatu haren erlijioagatik edo sinesmenengatik, eta estatuek neurri eraginkorrak hartu behar dituztela (lege-mailakoak, administratiboak eta hezkuntzakoak), intolerantzia ezabatzeko eta pertsona guztiei bermatzeko berdintasunean erabili ahal izatea beren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak, haien erlijioa edo erlijiorik eza kontuan hartu gabe.

NBERen Batzar Nagusiaren 48/128 Ebazpenak (1993), Erlijio-intolerantzia modu guztiak ezabatzeari buruzkoak, berretsi egiten ditu printzipio horiek, eta, besteak beste:

- estatuei gogorarazten die errespetatu eta babestu egin behar dutela pertsona guztien pensamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna;
- eskatzen die ikertu eta zigortu ditzatela erlijio-arrazoiengatiko indarkeria- edo diskriminazio-ekintzak;
- animatu egiten ditu hezkuntza-politikak eta -programak garatzera, horien bidez ulertuak, onartuak eta errespetatuak izan daitezkeen bestelako erlijio edo sinesmenak dituzten pertsonak eta taldeak.

Europa mailan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak zehaztu egiten ditu estandar horiek, eta irizten dio erlijio- edo sinesmen-arrazoien gaineko diskriminazioak urratu egiten duela Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (9. artikulua —erlijio-askatasuna—, eta 14. artikulua —diskriminaziorik eza—), ez dagoenean horretarako justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik, eta neurriak ez direnean proportzionalak lortu nahi den helburu legitimoarekin.

Bestalde, ESLAK, Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoaren (ODIHR) eta bertako Erlijio edo Sinesmen Askatasunari buruzko Aditu Taldearen bidez, zenbait gidalerro landu ditu erlijio-komunitateen nortasun juridikoari buruz (*Guidelines on the Legal Personality of Religious or Belief Communities*). Gidalerro horiek, besteak beste, honako irizpide hauek ezartzen dituzte:

- nortasun juridikoa lortzea ezin da izan erlijio-askatasunaren oinarritzko erabilerarako baldintza;
- erregistrarako prozedurek argiak eta irisgarriak izan behar dute, diskriminaziorik gabek, eta ez konplexuegiak edo garestiegiak;
- ez du egon behar justifikaziorik gabeko tratu pribilegiaturik erlijio batzuentzat beste batzuen gainetik;
- eta komunitate bati erregistratzea ukatu ahal izateko, uko horrek behar bezala arrazoituta egon behar du, eta kontrol judizialaren mende.

Gidalerro horiek legitimatu egiten dute administrazio publikoek berariazko neurriak hartzea: batetik, diskriminazioa prebenitzeko; bestetik, berrikusteko zer administrazio-prozedurak izan ditzaketen ondorio baztertzailak, eta, hirugarrenik, erlijio-komunitateei berdintasunezko tratua bermatzeko botere publikoekiko harremanetan.

C) BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOA, BAKE-KULTURA ETA ERLIJIO-ANIZTASUNAREN SUSTAPENA

Dimentsio juridiko hutsaz harago joanda, hainbat testuk nabarmentzen dute erlijioak eta sinesmenek rol garrantzitsua betetzen dutela bakearen eta bizikidetzaren kultura eraikitzeko.

Erlijioak bake-kulturaren sustapenean duen rolari buruzko Adierazpenak (NBE/UNESCO, 1994) azpimarratzen du erlijio-tradizioek ekarpen handia egin dezaketela gizarte bidezkoagoak eta baketsuagoak eraikitzen. Onartzen du erlijioak zeregin garrantzitsua bete dezakeela zenbait esparrutan, hala nola elkarren arteko elkarrizketan, elkar ulertzean, adiskidetzan eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzean, eta animatu egiten ditu erlijio-eragileak beren irakaskuntzak eta jardunak helburu horietara bideratzera. Era berean, estatuei, administrazio publikoei eta gainerako erakunde zibilei (hezkuntzakoak, kulturalak eta sozialak) eskatzen die aitortu, erraztu eta lagundu ditzatela bake-kulturaren aldeko ahalegin horiek (erlijioen arteko elkarrizketa sustatuz, erlijioek gizarte-kohesioan duten rol positiboa aitortuz, hezkuntza-, gizarte- eta komunitate-ekimenak babestuz, gizarte-kohesioa eta bizikidetzaren indartzeko estrategietan erlijio-komunitateak integratuz, eta justifikaziorik gabeko esparru murriztaileak saihestuz, haiek aukera izan dezaten beren potentzial positiboa hedatzeko).

Tolerantziari buruzko Printzipioen Adierazpenak (UNESCO, 1995) honela definitzen du tolerantzia: bai kulturen aniztasuna, bai adierazpideak eta bai gizakien izateko moduak errespetatzea, onartzea eta balioestea da. Azpimarratzen du tolerantzia ez dela ez bihozberatasuna ez axolagabekeria, baizik eta jarrera aktibo bat dela, oinarritzat duena giza eskubide unibertsalak eta oinarritzko askatasunak aitortzea; era berean, nabarmentzen du estatuen erantzukizuna dela tolerantzia sustatzea, hezkuntzaren, legeriaren eta politika publikoen bidez.

Hezkuntzaren arloan, honako hau azpimarratzen dute bai Eskoletan erlijio- edo sinesmen-askatasunean, tolerantzian eta diskriminaziorik ezan hezteko nazioarteko konferentzia aholku-emailearen azken dokumentuak (NBE/UNESCO, 2001) eta bai *Toledo Guiding Principles on Teaching about Religions and Beliefs in Public Schools* (ESLA/ODIHR, 2007) delakoak:

- hezkuntzak sustatu egin behar du erlijio eta sinesmenen ezagutza;
- era objektibo, kritiko eta pluralistan irakatsi behar da ezagutza hori, doktrinamendurik gabe;
- erlijioei eta sinesmenei buruz irakasteak murriztu egin ditzake aurreiritziak, estereotipoak eta gaizki-ulertuak;
- eta eskola funtsezko gunea da askotarikoak diren gizarteetan bizikidetzaren eraikitzeke.

Ildeoberetik, Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzari eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzari buruzko Gutunak (CM/Rec (2010)7 Gomendioa, Europako Kontseiluko Ministro Batzordearena) animatu egiten ditu estatu kideak erlijio- eta sinesmen-aniztasunarekiko errespetua integra dezaten, eta gizarte zibileko elkarteak eta komunitateak inplika ditzaten balio demokratikoen eta giza eskubideen sustapenean.

Testu horiek bizikidetzaren demokratikoaren eremuan kokatzen dute erlijio-aniztasuna: kontua ez da eskubideen urraketak saihestea bakarrik, baizik eta aktiboki jardutea, bizitza publikoaren alderdi normal eta legitimotzat bizi dadin sinesmenen aniztasuna gizarte-inguruneetan eta hezkuntza-inguruneetan.

1.3. ARAU-ESPARRUA

Espainiako estatuan, 1978ko Konstituzioan dago xedatuta erlijio-askatasuna bermatu beharra, 16.1 artikuluan aitortzen baitu pertsona guztiek dutela ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea. Agindu hori da oinarri juridikoa, erlijio-aniztasunari buruzko ondorengo araugintza guztia antolatzeke. Konstituzioak berak xedatzen du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera interpretatu behar direla oinarritzko eskubideei buruzko arauak (EK, 10.2 artikulua).

Konstituzioaren xedapen hori garatu da 1980ko Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoan, eta hor zehazten da zein diren erlijio-askatasunari lotutako eskubide indibidual eta kolektiboak, zer betebeharrak dituzten botere publikoek, eta zein den erlijio-komunitateen araubide juridikoa.

Legeak bereizi egiten ditu erlijio-askatasunerako eskubidearen dimentsio indibiduala eta kolektiboa, hau da, pertsonak babesteaz gain, erlijio-komunitateak ere babesten ditu, zeinek, behin Erlijio Erakundearen Erregistroan inskribatu ondoren, gaitasun juridiko osoa eskuratzen baitute kultu-lekuak ezartzeko, beren erlijio-eragileak prestatzeko, berezkoak dituzten jarduerak antolatzeke eta beste erakunde batzuekin harremanak izateke, Espainian zein Espainiatik kanpo.

Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz azpimarratu duenez bere jurisprudentzian, erlijio-askatasunerako eskubidearen barruan sartzen da aukera izatea norberaren sinesmenen arabera jokatzeko, horregatik inolako zehapenik eta desabantailarik izan gabe. Era berean, azaldu du laikotasun-printzipioak ez duela esan nahi Estatuak ez duenik sartu behar erlijioari lotutako kontuetan, baizik eta erraztu egin behar duela berdintasun-baldintzetan benetan eta eraginkortasunez erabiltzea erlijio-askatasunerako eskubidea¹¹.

¹¹ Observatorio del Pluralismo Religioso en España (2016). *Manual para la gestión municipal de la diversidad religiosa* (2.ª ed. rev.).

Espanian, Estatuaren eta zenbait erlijioen arteko lankidetzak-akordioekin osatzen da erlijio-askatasunaren erregulazioa. Akordio horiek Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoaren arabera hartu ziren, eta berariazko eskubideak aitortzen dituzte esparru jakin batzuetarako, hala nola zentro publikoetan erlijio-arreta emateko, erlijio-irakaskuntzarako, jaien ospakizunetarako eta komunitateen barne-antolaketarako. Estatuak nazioarteko hitzarmenetan jaso ditu Eliza katolikoarekiko akordioak, baina beste batzuekin sinatutakoek lege-maila dute, hala nola federazio ebanjelikoarekin, juduarekin eta musulmanarekin sinatutakoek. Espainiako esparru juridikoak beste mekanismo espezifiko bat ere aurreikusten du Estatuaren eta konfesioen arteko lankidetzak arautzeko: *errotze nabariaren* figura. Aitorpen hori ematen zaie herrialdean presentzia sozial esanguratsua eta egonkorra duten konfesioei. Horren helburua da identifikatzea zer komunitatek izan dezaketen elkarrizketa egituratuagoa botere publikoekin, kontuan hartuta lurraldean ondo errotuta daudela. Errotze nabarmenak ez du sortzen berez eskubide berririk, baina aukera ematen du (ez da betebeharra) Estatuak lankidetzak-akordioak sinatu ditzan, erlijio-tradizio bakoitzaren behar bereziei erantzuteko.

Arau horiekin guztiekin, sistema bat eratzen da, non erlijio-askatasuna, tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta laikotasun-printzipioa uztartzen diren; izan ere, botere publikoek, norbanakoaren kontzientzian esku ez hartzeaz gain, baldintza egokiak sortu behar dituzte eskubidea benetan erabili ahal izan dadin, eraginkortasunez eta bizikidetzak demokratikoarekin bat etorrita. Testuinguru orokor horretan, autonomia-erkidegoek hainbat eskumen dituzte, eguneroko jardunean erlijio-askatasunerako eskubidea erabiltzeari edo baldintzatzeari buruzkoak. Oraingoan, Kataluniak eta Euskadik soilik garatu dute araudi espezifikoak.

2023an, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak (2023); bada, lege horrek esparru propioa xedatzen du hainbat alderdi arautzeko, hala nola kultu-zentroen ezarpena hirigintzan, lokalen erabilera-baldintzak, udal-plangintza, espazioen erabilera ekitatiboa eta mekanismo egonkorak sortzea konfesioekiko elkarrizketarako.

Arau horrek onartzen du erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoa ez dela mugatzen eskubide indibidualen esparrura, baizik eta berekin dakarrela bermatzea erlijio-komunitateek beren eginkizunak bete ahal izango dituztela, modu antolatuan, segurtasunez eta interes orokorarekin bat etorrita. Horretarako, EAEko Erlijioen arteko Kontseilua sortzea aurreikusten du legeak: elkarrizketarako eta lankidetzarako organo aholku-emaile bat, Euskadin dauden administrazio publikoetako eta konfesioetako ordezkariak osatua. Honako eginkizun hauek izango ditu: erlijio-aniztasunaren arloan aholku ematea, erlijioen arteko bizikidetzak sustatzea, tentsio-egoerak aurreikustea eta erlijio-askatasunerako oinarritzko eskubidea benetan garatzen laguntzea.

Gizarte demokratiko batean, erlijio-askatasuna bermatzea ez da mugatzen maila juridikoan norbanakoen eta taldeen eskubideak aitortzera, baizik eta, horrez gain, berekin dakar benetan eta eraginkortasunez integratzea bizitza publikoan erlijio eta sinesmenen aniztasuna. Esparru horrek (Konstituzioa, Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoa, erlijioekiko lankidetzak-akordioak, EAEko kultu-zentroei buruzko Legea) berdintasuna eta diskriminaziorik eza babesteaz gain, botere publikoek eskatzen die sor ditzatela baldintza egokiak, tradizio espiritual, filosofiko eta erlijioso desberdinen artean bizikidetzak ahalbidetzeko. Prozesu horretan, gerta daiteke zenbait egoeratan elkarren aurka talka egitea hainbat pertsonaren edo komunitateren eskubide nahiz itxaropenek; horregatik, erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoak ezinbestekoak ditu bai elkarrizketarako prozedura nahiz espazioak bai irizpide argiak, konponbide orekatuak aurkitu ahal izateko, esparru demokratikoarekin bat etorrita.

1.4. ERLIJIO-ANIZTASUNAREN GOBERNANTZARAKO JOERAK

Hainbat ikerketak¹² erakutsi dute demokrazia garaikideak izugarri bilakatu direla, eredu konfesional zorrotz edo laizistetatik ikuspegi konplexuagoetara, aitortzeraino erlijio-komunitateak eragile publiko legitimoak direla gizarte pluralistetan. Aldaketa instituzional horrekin batera, ugaritu egin dira erlijioen arteko ekimenak, bai parte-hartze demokratikoaren logikak hala ekarri duelako, bai aniztasuna eskubideen ikuspegitik integratzera bideratu direlako gobernantza-estrategiak. Esperientzia sendoenak bat datoz gauza batean: ezinbestean eraiki behar dira elkarrizketarako mekanismo inklusiboak, ordezkaritza egokikoak eta horizontalak, eta saihestu egin behar dira egitura hierarkikoak edo sinbolikoak, mugatu egiten baitute eraldatzeko gaitasuna.

Kultura- eta erlijio-aniztasunaren kudeaketa, hala, funtsezko alderdia bihurtu da gobernantzan; izan ere, erlijioaren gaia nazioarteko agendan sartu da, narratiba global berriak agertu dira erlijioari eta espazio publikoari buruz, erlijio-identitatea aitorten-elementu gero eta garrantzitsuagoa da gizarte pluraletan, eta European bizi-bizirik dago erlijiotasunaren gaia.

Azken urteotan, ugaritu eta dibertsifikatu egin dira botere publikoei zuzendutako eskaerak. Aldi berean, gatazkak eta kexak sortu dira espazio publikoan, baita bizilagunen artean tentsioak ere kultu-zentroak irekitzeagatik, eta gizarte-erreakzioak gertatu dira erlijio-adierazpen jakin batzuk direla eta. Halaber, gobernagarritasun-krisiak agertu dira erlijio-gaiei lotuta, eta gero eta arreta handiagoa jartzen da erlijio-aniztasunaren eta gizarte-kohesioaren arteko harremanean; erlijioaren aldagaia kohesio-estrategietan txertatu da, kezka handia dago gutxiengoan estigmatizazioa edo erradikalizazioa saihesteko, eta ezinbestekotzat jotzen da errespetuzko eta auzokidetasun oneko bizikidetzak sustatzea askotariko taldeen artean.

Erljio-aniztasunaren kudeaketa publikoaren azterketak erakusten duenez, kudeaketaren ardura aldatu egin da Estatutik udaletara: udaletan kudeatzen dira, zuzen-zuzenean, erlijio-aniztasunarekin lotutako eskariak eta gatazkak, eta, aldi berean, eutsi egiten zaie Elizaren eta Estatuaren arteko harreman-eredu nazionalari, egokitzapen esanguratsuak egiten bazaizkie ere udaletako jardunean. Tokiko politiketan ez dago erlijio-aniztasunari buruzko eredu bakar bat, baizik eta konfigurazio hibridoak daude, eta testuinguruak neurri handian baldintzatutakoak.

Esparru horretan, nabarmentzen da¹³ erlijioaren gobernantza garaikidea ez dagoela lege- edo erakunde-esparruen mende soilik, baizik eta, horrez gain, aintzat hartzen dituela orientabide ideologiko zabalagoak, hala nola laikotasunari buruzkoak eta eremu publikoan erlijioak zer leku duen diotenak. Europako testuinguruan hiru narratiba handi ageri zaizkigu. Batetik, narratiba sekular modernista dugu; horrek, nagusiki, eremu pribatukotzat hartzen du erlijioa, eta nabarmentzen du argi banatu behar direla erakunde publikoak eta sinesmenak. Bigarrenik, narratiba identitario kristaua dago; ikuspegi horrek Europako kultura-identitatearen berezko osagaitzat jotzen ditu kristau-tradizioak, eta lagundu egiten du horiek espazio publikoan ikusarazten. Hirugarrenik, narratiba pluralista dugu; gizarte garaikideen egiturazko elementutzat hartzen du erlijio-aniztasuna, eta egokitze- eta elkarrizketa-tresnak sustatzen ditu hura kudeatzeko.

12 Giera, M., & Nagel, A.K. (2018): Interreligious relations and the governance of religion in Europe: Introduction. *Social Compass*, 65(1), 3-12. or.

13 Giera, M., & Martínez-Ariño, J. (2025). *Sociological perspectives on the governance of religion in contemporary Europe*. In E. Fokas & A. Giorgi (Eds.), *The Routledge Handbook of Religion and Politics in Europe*. Taylor & Francis

Era berean, zenbait elementuk eragin eta baldintzatu egiten dute erlijioaren eta arlo publikoaren arteko mugak nola definitzen diren eta zer esku-hartze mota jotzen diren legitimoztat edo lehentasunezkoztat; elementu horien artean daude inplikaturako eragileak, gizarte-mobilizazioko dinamikak, eta erlijio-adierazpen espezifikoekiko kultura-sentsibiltatea (pertzepzio sozial eta kulturalak, onargarritasun txikiagoa aitortzen dietenak erlijio-jardun jakin batzuei, edo eztabaida sortzen dutenak haien inguruan).

Laikotasun-ereduei buruzko literaturan, laikotasun kooperatiboko¹⁴ kasu gisa deskribatu ohi da Espainia; izan ere, estatu ez-konfesionala bada ere, onartzen ditu erlijio-konfesioak, eta elkarlanean aritzen da haiekin¹⁵. Europako beste bi ereduren artean dago eredu hori. Alegia, Europan, batetik, Frantziako *laïcité* delakoak bereizketa zorrotza egiten du estatuaren eta erlijioen artean, eta, bestetik, "Eliza ezarriaren" sistema dute beste herrialde batzuetan. Espainiako eremuan, berriz, estatua neutrala da, baina horrek ez dakar erlijio-kontuetan eskurik ez hartzea, baizik eta aukera ematea lankidetzaren harremanak izateko, berdintasun-baldintzetan eta aniztasuna errespetatuta. Alde horretatik, Espainiako erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoan, solaskide legitimoztat hartzen dira erlijio-komunitateak, eta mekanismo egonkorak daude erakunde-harremanetarako. Trantsizio demokratikoaz geroztik, aldatu egin da kudeatzeko modua: nagusiki bertikala eta zentralizatua izateari utzi, eta horizontalagoa, plurala eta maila anitzekoa bihurtu da. Kudeaketa modu horretan, zuzenean esku hartzen dute Estatuko Administrazio Orokorak, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek, bai agentzia publiko espezifikoekin batera (Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioa, esaterako), eta bai askotariko erlijio- eta gizarte-eragileekin batera.

Laikotasun kooperatibo edo "laikotasun positiboaren" eredu horrek zuzeneko ondorioak ditu erlijio-aniztasunaren maila anitzeko gobernantzan; esaterako, hainbat tresna erabiltzeko aukera ematen du (baina behartu edo zehaztu gabe), eta tresna horiek oso erabiliak dira autonomia-erkidegoetako nahiz tokiko administrazioetan: erlijio-komunitateekiko lankidetzahitzarmenak, laguntza tekniko hirigintza- edo administrazio-prozesuetan, espazio publikoen lagapena edo erabilera partekatua, kontsulta-organoetan erlijio-ordezkariek parte hartzea, eta gidak edo protokoloak egitea erlijio-jardunak hainbat esparrutan egokitzeko¹⁶. Dinamika horiei esker, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek politika propioak hedatzen dituzte erlijio-askatasunaren esparru orokor horren barruan; hala, eratzen den sistema horretan, zenbait eragilek eta gobernu-mailak hartzen dute parte, eta haien eskumenak bateragarriak dira.

Testuinguru horretan, toki-administrazioek elkarrizketarako egiturak jarri dituzte abian (udal-bulegoak, kontsulta-batzordeak, erlijioen arteko kontseiluak edo plataforma mistoak), bai eta hainbat tresna ere: hirigintza-antolamendukoak, espazio publikoa kudeatzekoak eta erakundeek laguntza ematekoak. Esku hartzeko esparruak normalean beti berberak diren arren (kultu-lekuak, erritualak, sinboloak, jaiegunak, hezkuntza, finantzaketa, espazio publikoaren erabilera, etab.), erabakiak oso desberdinak izan daitezke, bai eta zenbateraino esku hartzen den ere.

14 RELIGARE Project (2013): *Religious diversity and secular models in Europe – Innovative approaches to law and policy*. European Commission, CORDIS

15 Martínez-Torrón, J. (2014). *Religious freedom, church-state relations, and the role of the state in Spain*. Brigham Young University Law Review, 2014(3), 701.-732. or.

16 Astor, A., & Griera, M. (2016). *La gestión pública de la diversidad religiosa en España. Un modelo multinivel en transformación*. South European Society and Politics, 21(1), 117.-136. or.

Esparru horretan bertan, oraintsuko literaturak¹⁷ iradokitzen du erlijio-aniztasunari buruzko politika publikoek bere egin beharko luketela sareko gobernantzaren ikuspegia (governuak eta administrazioak, erlijio-komunitateak, elkarteak, eragile ekonomikoak, etab.), goitik arauketa juridikoa soilik egin beharrean. Horretarako, tresnak diseinatu behar dira, hala nola erlijioen arteko elkarrizketarako organoak, erlijio-komunitateekiko hitzarmenak eta hirigintza-mekanismoak (kultu-lekuetarako lurzoru-planak, espazio publikoaren erabileren erregulazioa), baina betiere kritikoki aztertuta ea eragin dezaketen ondorioz inklusioan/bazterketan eta komunitateen arteko botere-banaketan. Azpimarratzen da ez dagoela eredu unibertsalik, eta ezinbestekoa dela tresnak hiri bakoitzaren testuingurura egokitzea, hala nola erlijio eta politikak hirian egindako ibilbideetara, hiriari buruzko narratibetara, eta faktore sozioekonomiko eta lurralde-faktore zehatzetara. Hortaz, politikak garatzean beti hartu behar da kontuan testuinguru zehatzera egokitu beharra, lurraldeen arabera desberdinak baitira erlijio-esparrua osatzen duten faktore instituzional, demografiko, kultural eta politikoak.

Hurbileko kasuei buruzko ikerketek, hala nola Madrili eta Bartzelonari buruzkoek, erakusten dute estatu-eremu beraren barruan ere hiriek oso ikuspegi desberdinak garatu ditzaketela erlijio-gobernantzan: Madrilek eredu pasiboagoa hartu du, "hands-off" motakoa, immigrazio- eta kultura-politiken barruan txertatua, eta Bartzelonak, berriz, ikuspegi proaktiboagoa bultzatzen du, "hands-on" motakoa, politika publikoko sektore espezifiko gisa jorratuz erlijioa. Desberdintasun horiek oso lotuta daude hiri bakoitzaren politika- eta lurralde-posizionamenduarekin: Madrilen, bereizgarri dira nazioarteko diplomaziaren garrantzia, estatu-erakundeekiko hurbiltasuna eta hierarkia katoliko tradizionalaren pisua; Bartzelonan, aldiz, zentro politikotik urrun egoteak eta eredu propio bat egituratu nahiak berekin ekarri du zenbait egitura egonkor sortzea —hala nola Erlijio Gaietarako Bulegoa—, zenbait mekanismo abiatzea erlijio-komunitateekin eta gizarte-erakundeekin lankidetzan aritzeko, esparruak nahiz gidak sortzea hainbat talderen berezko elementuetara egokitzeke, gune egituratuak ezartzea erlijioen arteko elkarrizketarako, askotariko erlijio-eragileek formalki parte hartzea udal-prozesuetan, eta lankidetzabide iraunkorrak egotea administrazioaren eta erlijio-komunitateen artean.

17 Martínez-Ariño, J. (2019). Governing religious diversity in cities: critical perspectives. *Religion, State and Society*, 47(4-5), 364.-373. or.



2. ESTRATEGIAREN OINARRIAK

2.1. ARLO PUBLIKOAN ERLIJIO-GERTAKARIA ULERTZEKO PRINTZIOAK

Erljioari buruzko egungo ikerketek ekarpen baliotsuak egin dituzte aniztasun-testuinguruetan politika publikoak bideratzeko, eta hainbat printzipio finkatu dituzte, hobeto ulertzeko nola funtzionatzen duten erlijio-tradizioek eta nola adierazten diren gizarte-bizitzan. Erreferente horiek oinarri kontzeptual erabilgarria dira Euskadin eredu propioa eraikitzeko.

Esparru horretan, *Religious Studies* direlako ikasketetan espezializatutako literaturak^{18,19} eta Harvard Divinity School-en *Religion and Public Life* programak hiru ideia nabarmentzen dituzte, hirurak ere oso onartuak²⁰:

A) ERLIJIO BERAREN BAITAN ERE ANIZTASUN HANDIA EGOTEN DA

Tradizio beraren barruan ere askotarikoak izan daitezke korrante teologikoak, sentsibilitate espiritualak, jardunak, interpretazioak eta kultura-adierazpenak. Barne-aniztasun hori, batetik, tradizio beraren barruan hainbat korrante egonda islatzen da (kristautasunaren nahiz hinduismoaren adar anitzak, esaterako), baina, bestetik, korrante horietako bakoitzaren barruan ere egon ohi da aniztasuna, bakoitza zer-nolako testuinguru sozial, kultural eta politikotan garatzen den. Aniztasun hori agertzen da, adibidez, genero-roleri buruzko barne-eztabaidetan, bai eta antzeko jardunbideetarako justifikazio teologiko desberdinak ematen dituztenean ere komunitate beraren barruan.

Oro har egin ohi diren baieztapen asko sinplifikazio hutsak dira (adibidez, "budistak honelakoak eta honelakoak dira", "ateismoa da...", "islamak dio...", "erlijioak honen eta honen aurka daude", etab.), tradizio osoarekin parekatzen baitute interpretazio jakin bat (edo aurreiritzi bat).

B) ERLIJIOAK ALDATUZ DOAZ DENBORAN ZEHAR

Erljioak ez dira estatikoak, ezta historiatik at dauden errealitateak ere: denboran eta espazioan existitzen dira, eta etengabe berrinterpretatzen dira haien sinesmenak eta jardunak. Kontzeptu batzuen esanahia aldatu egin da, eta tradizio beraren barruan defendatu nahiz kritikatu egin dira zenbait jardun, garai historikoaren arabera. Dinamika horiek agerian uzten dute erlijio-tradizioak bizirik daudela, testuinguru sozial aldakorren arabera direla, eta ezin direla ulertu haien dimentsio historikorik gabe.

18 Moore, D. L. (2007). *Overcoming religious illiteracy. A cultural studies approach to the study of religion in secondary education*. Palgrave Macmillan.

19 Moore, D. L. (2015). Diminishing religious literacy: Methodological assumptions and analytical frameworks for promoting the public understanding of religion. In A. Dinham & M. Francis (Arg.), *Religious literacy in policy and practice* (27.-38. or.). Bristol University Press.

20 American Academy of Religion (2010). *The American Academy of Religion guidelines for teaching about religion in K-12 public schools in the United States*. AAR

C) ERLIJIOAK SAKON ERROTUTA DAUDE KULTURETAN

Erljioak kulturaren parte dira: ideien, jardunen, balioen eta narratiben bildumak dira, beren testuinguruetatik bereizi ezinak. Horregatik, edozein fenomeno kultural, sozial edo politiko ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea haren dimentsio erlijioso esplizituak nahiz implizituak; era berean, ezin da erlijio bat ulertu, hura osatzen duten faktore kulturalak alde batera utzita.

Hiru premisa horiez gain, kontuan hartu behar da azken hamarkadetan garatutako ikerketa-ikuspegi bat ere; ikuspegi hori *bizitako erlijioa (lived religion)* kontzeptuaren bidez adierazten da, eta oso presente dago erlijioen soziologian eta antropologian. Ikuspegi horretan azpimarratzen da erlijioa ulertzeko ezin dela oinarritu doktrina ofizialetan edo hierarkien jarreretan soilik, baizik eta, horrez gain, aztertu behar dela zer jardun eginez, zer esanahi eman ez eta zer forma eman ez interpretatzen, artikulatzen eta adierazten dituzten pertsonak eta komunitateek eguneroko bizitzan beren sinesmenak testuinguru espezifikoetan.

Euskadin zenbait ikerketatan ari dira ikuspegi hori aplikatzen; besteak beste, Deustuko Unibertsitateko "Erljioak, espiritualtasuna eta kultura ugariko gizartea" taldeak egindako lanean. Talde horrek *lived religion* ikuspegiari buruzko nazioarteko proiektuetan parte hartzen du, eta aztertzen du sinesmenak nola bizi, negoziatu eta eraldatzen diren tokiko testuinguruetan, batez ere migratutako komunitateetan eta komunitate transnazioaletan²¹.

Politikak diseinatzean, begiratu behar da erlijio-komunitate batek nola antolatzen dituen elkarrekiko laguntza, lagun egiteko modua, hezkuntza-jarduerak edo elkartasun-sareak, eta zer jarrera duen hainbat gairen funtsezko auzietan, hala nola bizikidetzak, genero-berdintasuna, sexu-aniztasuna, indarkeria, hezkuntza, osasuna eta herritarren partaidetza. Beraz, *bizitako erlijioaren* ikuspegia bereziki da garrantzitsua kudeaketa publikorako, aukera ematen baitu zenbait gauza ulertzeko:

- zer-nolako aldea dagoen batzuetan doktrina-arauen eta komunitateen benetako jardunen artean;
- sinbolo, erritu edo agindu berak zenbat motibazio, erabilera eta esanahi desberdin izan ditzakeen talde beraren barruan ere; eta,
- erlijio-adierazpenek zer ezaugarri dituzten beren kokapenaren, harremanen eta testuinguruaren arabera, oso desberdinak izan baitaitezke talde, belaunaldi edo eremu batetik bestera.

Ikuspegi horrekin, beraz, zabaldu egin behar da "zer dio ofizialki tradizioak gai bati buruz?" galdera, eta beste hau egin: "nola interpretatzen eta praktikatzen dute benetan gai hori Euskadiko komunitate eta pertsona jakinek?". Ikusmolde hori funtsezkoa da, hori kontuan hartuta diseinatu behar baitira politikak, egiaz erantzun diezaioten erlijio-aniztasunaren errealitateari, orain eta hemen.

²¹ Adibide batzuk:

De León, J. L., & Basterretxea, I. (2025). *Religiosidad y espiritualidad en la población china de la Comunidad Autónoma de Euskadi* komunikazioa, *I International Conference on Secularity, Religion and the Postsecular Era: Future Perspectives* biltzarrean, Loyola Andalucía Unibertsitatean;

Rodríguez, L., Uriarte, L., & Basterretxea, I. (2020). Cristianos latinoamericanos que viven en el País Vasco (España): lo que permanece y lo que cambia. *Religions*, 11(2), 84.

Uriarte, L. (2017). La "no-religión" y su vivencia. *Estudos de Religião*, 31(3), 207.-231. or.

2.2. JARDUNA BIDERATZEKO PRINTZIBIOAK

Aipatutako oinarrizko testu horietan oinarrituta²², hainbat printzipio aipa ditzakegu botere publikoen jarduna bideratzeko.

A) BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA BERMATZEA

-
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Nazio Batuak, 1948), 2. art.
 - Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (NBE, 1966; 1976tik indarrean), 2. eta 26. artikulua.
 - Erljioan edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena (NBEren Batzar Nagusia, 1981)
 - Batzar Nagusiaren ebazpenak, erlijio-intolerantzia mota guztiak ezabatzeari buruzkoak (bereziki 48/128 Ebazpena, 1993)
-

Giza eskubideen nazioarteko esparruak xedatzen du berdintasun-baldintzetan gauzatu behar dela erlijio- edo sinesmen-askatasuna, berariaz saihestuta zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioa. Botere publikoek tratatu bera bermatu behar diete pertsona guztiei, zein-nahi direla ere haien erlijioa edo sinesmenak.

Esparru horren barruan, nazioarteko estandarrek oro har aitortzen dute gobernuen neutraltasun- eta inpartzialtasun-printzipioa: administrazioek ezin dute egin inolako erlijio edo sinesmenen alde edo kontra, eta ez dute inolako identifikazio instituzionalik egin behar erlijio-tradizio jakin batekin. Honako hau dakar horrek:

- legeak, protokoloak eta administrazio-jardunbideak aztertzea, ikusteko ea badagoen justifikaziorik gabeko oztoporik;
- bermatzea prozedurak (erregistroa, lizentziak, baliabide publikoak eskuratzea, dirulaguntzak, lokalen lagapena, kontratazio publikoa) argiak direla, irisgarriak eta diskriminaziorik gabeak;
- ziurtatzea komunitate bakar bat ere (gehiengoa edo gutxiengoa, erlijiosoa edo ez-erlijiosoa) ez dela hartuko mendekotzat;
- neurri zuzentzaileak aplikatzea, baldin eta ikusten bada desberdintasunak metatzearen ondorioz zaildu egin dela eskubideak benetan erabiltzea.

B) PLURALISMOA, BALIO DEMOKRATIKOA DEN ALDETIK

-
- 22. Ohar Orokorra, pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubideari buruzkoa (NBEko Giza Eskubideen Batzordea, 1993)
 - Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (Europako Kontseilua, 1950), 9. art.
 - Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000), 10. art.
 - ESLA/ODIHRen Gidalerroak, erlijio- edo sinesmen-askatasunari buruzkoak (2004, 2019)
-

22 Torradeflot, F. (2002). *Diálogo entre religiones: Textos fundamentales*. Editorial Trotta

Nazioarteko tresna nagusien arabera, gizarte garaikideak berezkoa du sinesmen-aniztasuna (jarrera erlijiosoak, espiritualak, filosofikoak eta ez-erlijiosoak barne). Aitorpen hori, deskribatzailea izateaz gain (gizarte demokratikoak berez pluralak dira), arauemailea ere bada, hau da, desberdintasunak egon badaudela onartzeaz gain, adierazten du desberdintasun horiek errespetatu egin behar direla, eskubideak bermatu, eta bizikidetza berdintasun-baldintzetan sustatu (pluralismoa aktiboki babestu beharreko balioa da, "espíritu demokratikoaren" baldintza denez gero).

Hori hala ulertuta, erlijio- edo sinesmen-askatasunak era berean babesten du erlijioaren edo sinesmenen barne-dimentsioa (sinestea, ez sinestea edo sinesmenez aldatzea), bai eta horiek adieraztea ere, espazio publikoan nahiz pribatuan, bakarka nahiz taldean. Printzipio horren arabera, jardun publikoak lagundu egin behar du gizartearen aniztasuneranzko eraldaketan, ez bakarrik aniztasun hori "kontrolatu", hau da, ez aniztasunaren arauketa mugatzaile hutsa egin. Hortik ondorioztatzen da:

- erlijio-aniztasuna gizarte-normaltasunaren partetzat aitortzen duten politikak garatzea, migrazioaren esparrura murriztu gabe;
- erlijio-aniztasunari buruzko diagnostiko zorrotzak txertatzea plangintza publikoan, beste aniztasun batzuk aitortzearekin batera;
 - pluralismoa balio demokratikoa dela sustatzea erakunde publikoen narratiban, eta ez dela mehatxua edo salbuespena;
 - hainbat arlotako politiketan txertatzea sinesmen-aniztasuna: hezkuntza, kultura, gazteria, gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, segurtasuna, bizikidetza.

Era berean, aitortu beharra dago erlijio-konfesioek ekarpen handia egiten diotela gizarteari *kapital sozial* gisa, eta, beraz, erlijio edo sinesmenen "mapa" egiteaz gain, kontuan hartu behar da lokarriak eta herritartasun erak²³ sortzen dituztela: *loturazkoak* (kidetasuna eta elkarrekiko babesa), *zubi-lana* egitekoak (erlijioen eta kulturen arteko topaketak egiteko eta askotariko gizarte-erakundeekin lankidetzan aritzeko irekitasuna), eta *sarbidea* erraztekoak (erabakiak hartzen diren gune publikoetan parte hartzeko ahalmena, horrela beren beharrak agertu eta ekarpenak egin ditzaten, eta jarrera aktiboa izan dezaten kohesio soziala eraikitzen).

Azkenik, praktikan, jardun publikoan ondo bereizi behar da erlijiosotzat aurkezten diren eskaeretan zer diren erabilera edo jardun kulturalak, sozialak nahiz antolamenduari lotuak, denak ez baitira doktrinan oinarrituak izaten, ez eta komunitate osoak bere gain hartuak ere. Horregatik, ondo bereizi behar da zer den berezitasuna (eskubideen esparruarekin bateragarriak diren egokitzapenak) eta zer den salbuespena (berdintasunarekin, diskriminaziorik ezarekin nahiz oinarritzko arauekin bateraezinak direnak), betiere eskabideak ondo kontrastatuz bai ordenamendu juridikoarekin eta bai erlijioaren barne-aniztasunari eta "bizitako erlijioari" buruzko informazio fidagarriarekin.

Erljio-aniztasunaren aitortpena, beraz, eskubideak eta egiazko berdintasuna bermatzeko tresna gisa ulertu behar da, eta ez irizpide komunetan aplikatu daitezkeen salbuespen gisa. Erljio-aniztasunaren kudeaketa publikoan, bereizi egin behar da zer den testuinguru kulturalak eta sozialak ulertzea eta zer den giza eskubideetan, tratu-berdintasunean eta erantzukizun zibikoan oinarritutako arau-esparru partekatutako mantentzea. Aniztasuna errespetatzeak ezin du ekarri erlatibismo arauemailerik, ezta paternalismo instituzionalik ere, horrek zeharkako estigmatizazioa eragin dezake eta.

23 Bilbao Urquidi, S. (2015). *El capital social de las minorías religiosas en el País Vasco*. Doktorego-tesia. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

C) ELKARRIZKETA, HEZKUNTZA ETA BIZIKIDETZA PLURALA SUSTATZEA

- *Erljioak bake-kulturaren sustapenean duen rolari buruzko Adierazpena (NBE/UNESCO, 1994)*
- *Tolerantziari buruzko Printzipioen Adierazpena (UNESCO, 1995)*
- *Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Konferentzia Aholku-emailea (UNESCO, 2000)*
- *Erljio eta Sinesmenei buruzko Hezkuntzarako Toledoko Printzipioak, (ESLA/ ODIHR, 2007)*
- *Europako Kontseiluaren Gutuna, Herritartasun demokratikorako eta giza eskubideetarako hezkuntzari buruzkoa (2010)*
- *Europako Parlamentuaren Adierazpena, Erljioak kulturen arteko elkarrizketari egiten dion ekarpenari buruzkoa (1999)*

Nazioarteko hainbat testuk azpimarratzen dutenez, erljio- eta kontzientzia-tradizioek rol konstruktiboa izan dezakete bizikidetzan, elkarrizketan, gatazken prebentzioan eta gizarte-kohesioan. Hori oinarri hartuta, egoki eta bidezkoztat jotzen da politika publikoek erljio- eta sinesmen-komunitateen partaidetza sustatzea elkarrizketa- eta lankidetzak-ekimenetan, bat etorrita Estatuaren zenbait printzipioekin: neutraltasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin, alegia. Alde horretatik, kudeaketa publikoa ez da mugatzen eskubideak bermatzera; horrez gain, elkarreragin positiboak bideratu ditzake bizikidetzak plurala indartzeko. Honako hau dakar horrek:

- mekanismo egonkorak ezartzea, elkarrekin elkarrizketan jardun dezaten erljio-komunitateek, administrazioek eta gizarte zibilak;
- erljio-aniztasunari buruzko hezkuntza-programak sustatzea, ezagutza hobetzen eta aurreiritziak murrizten laguntzeko;
- sentsibilizazio publikoko kanpainak sustatzea, errespetua eta ulermena indartzeko;
- kulturen arteko nahiz erljioen arteko topaguneak sortzea, batez ere gazteen esparruetan eta gizarte-bizitza egiten den horietan;
- erljio-komunitateen eta sinesmenekin lotutako bestelako erakundeen bake-, bitartekotza- eta bizikidetzak-ekimenak babestea.

D) GUTXIENGOAK BERARIAZ BABESTEA

- *Erljioan edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena (NBEren Batzar Nagusia, 1981)*
- *22. Ohar Orokorra (NBEko Giza Eskubideen Batzordea, 1993)*
- *Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950) eta Erljio-gutxiengoei buruzko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) jurisprudentzia*
- *Gutxiengo nazional edo etniko, erlijioso eta hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideei buruzko Adierazpena (NBEren Batzar Nagusia, 1992)*

Benetako berdintasuna izateko, ezinbestean jarri behar da arreta desabantaila-egoeraren batean egoteagatik beren eskubidea baliatu ezin duten komunitate edo pertsonengan. Honako hau dakar horrek:

- identifikatzea zer behar espezifiko dituzten komunitate minoritarioek beren egoera sozial, juridiko edo materialen ondorioz;
- laguntza instituzionala ematea administrazio-prozesu konplexuetan (erregistroa, kulturako baimenak, espazioen erabilera, ehorzketa-lizentziak, etab.);
- komunitate espezifikoek zuzendutako gorroto-, estigmatizazio- edo indarkeria-diskurtsoak prebenitzea;
- bermatzea gainerakoen baldintza berberetan erabili edo eskuratu ahal izango dituztela espazio, ekipamendu eta baliabide publikoak;
- elkarriketa-kanal irisgarriak eta egonkorak sortzea, elkarrenganako konfiantza errazteko.

Printzipio honek onartzen du berdintasun formalak ez duela beti bermatzen berdintasun materiala, eta hori zuzentzeko jardun behar dutela botere publikoek.

E) ESKUBIDEA MUGATZEAN PROPORZIONALTASUN- ETA BEHARRIZAN-IRIZPIDEAK APLIKATZEA

-
- *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (NBE, 1966), 18.3. art.*
 - *Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950), 9.2. art.*
 - *22. Ohar Orokorra (NBEko Giza Eskubideen Batzordea, 1993)*
 - *Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) jurisprudentzia, erlijio-adierazpenak mugatzeari buruzkoa*
-

Nazioarteko esparruak oso irizpide zorrotzak ezartzen ditu erlijioaren edo sinesmenen kanpo-adierazpena mugatzeko. Printzipio honek berresten du legitimoa dela erlijioa jendaurrean adieraztea, eta mugaketek salbuespenezkoak eta justifikatuak izan behar dutela. Honako hau dakar horrek:

- proportzionaltasunaren azterketa zorrotza egitea, erlijio-askatasunari eragiten dion edozein neurritan;
- bermatzea segurtasunaren, ordena publikoaren, osasunaren edo bizikidetzaren arloko esku-hartzeek ez dituztela sortzen behar baino murrizketa handiagoak;
- erabakiak hartu aurretik, ebaluatzea ea badagoen beste aukerarik, hain murriztailea ez denik;
- neurriaren beharra behar bezala dokumentatzea, argudio generiko edo kulturaletara jo gabe;
- irizpideak aplikatzean barne-koherentzia ziurtatzea, tratu desorekatu edo arbitrarioerik ez emateko.

2.3. KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

Estrategia horren kudeaketak nahitaez oinarritu behar du egiturazko hiru printzipiotan:

A) PLANGINTZA ETA AURREA HARTZEA²⁴

Funtsezkoa da erantzun erreaktiboak saihesteko eta eredu proaktiboa izateko. Oso garrantzitsua da ezagutza eguneratua izatea, gatazka-egoerak aurreikustea, jardunbide egokiak identifikatuta edukitzea, eta eztabaidak sortu aurretik argudio eta protokoloak izatea, horrek aukera ematen baitu autoritate publikoz, behar bezala eta koordinatuta jarduteko, tentsioak murrizteko eta lortzeko gorroto-diskurtsoa ez dadila gizartean modu eraginkorragoan hedatu. Aurrea hartu ahal izateko, ezinbestekoa da diagnostiko deskribatzaileetatik harago joatea (kasuak edo baliabideak zenbatzetik harago), eta testuinguruaren nahiz agertokien analisia egitea. Horretarako, funtsezkoa da lankidetzaren egonkorra antolatzea esparru akademikoarekin eta tokian tokiko esparruko erakundeekin, hobeto identifikatu ahal izan daitezkeen aurreikusteko moduko joerak, arrisku-faktoreak, erakundeen ahalmenak eta lurraldeko erronka nagusiak. Era berean, beharrezkoa da lurraldeari etengabe laguntza tekniko ematea, hartara esku hartzeko tresnak (protokoloak, prestakuntza eta jarduteko irizpideak) arau-esparruan oinarritu daitezkeen, eta, bereziki, ezagutza enpiriko eguneratua.

B) LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZEA

Alegia, harreman egonkorra antolatu behar dira administrazioen eta konfesioen artean, erlijio-askatasuna eraginkortasunez erabil dadin sustatzeko, berdintasun- eta laikotasun-printzipioak errespetatuta. Lankidetzaren horrek zenbait molde har ditzake: elkarrizketa aldeaniztuna (EAEko Erlijioen arteko Kontseilua, esaterako), alde bikoia, Administrazioaren alde bakoitzeko ekintzak edo hitzarmen espezifikoak, identifikatu dadin zer premia dituzten komunitateek nahiz komunitateetako kideek eta administrazio publikoek, eta berma dadin erabaki guztiak ezagutza tekniko izanda eta sailen arteko ikuspegiak hartzen direla. Aldi berean, kontuan izan behar da erlijio-erakundeen aitortze instituzionala egiten denean horrek ez duela esan nahi barruan hartzen denik tradizio bati lotutako biztanle guztien ordezkari sozilogiko edo identitarioa. Bestalde, kontuan hartuta udal mailan egin ohi dela erlijio-aniztasunarekin lotutako gorabeheren hautemate goiztiarra eta eguneroko kudeaketa, eta udal mailan konpontzen direla auzi horiek, ezinbestekoa da kudeaketa-ereduaren ardatz nagusitzat udalerririk hartzea. Ildo horretan, garrantzitsua da harreman-kanal egituratu eta iraunkor bat izatea toki-erakundeekin eta EUDELekin, baterako lana ahalbidetzeko, informazioa partekatzeko, sortzen ari diren premiei aurrea hartzeko, jarduteko irizpideak harmonizatzeke, eta erantzun erreaktibo edo deskoordinaturik ez emateko.

C) JARDUN PUBLIKOAREN UNIBERTSALTASUNA

Hori guztia laikotasun barneratzailearen ikuspegia hartuta garatu behar da, bermatzeko jardun publikoa herritar guztiei zuzentzen zaiela, fededunei zein fedegabeei. Erlijio-askatasuna ez da mugatzen sinesmenei lotutako jardunak gauzatzera, barnean hartzen baitu sinesmenik ez izateko eskubidea ere; beraz, ateak, agnostikoak eta konbikzio ez-erlijiosoak erabat sartzen

²⁴ Moreras, J. (2017). *La gobernanza de conflictos relacionados con la pluralidad religiosa* (Documentos del Observatorio, 6. zk., ISSN 2254-2655). Observatorio del Pluralismo Religioso en España.

dira kontzientzia-askatasunaren esparruan, eta egiturazko elementutzat txertatu behar dira politika horietan. Laikotasunaren ikuskera horrek, beraz, eremu politikoaren eta erlijiosoaren arteko bereizketa defendatzen du, baina onartzen du gizarte-bizitzaren parte direla dimentsio espirituala eta zentzuarekin lotutakoa (horien adierazpen modu guztiak, baita ez-erlijiosoak ere). Ikuspegi horretatik, zabaldu egin nahi da erlijio-aniztasunaren kudeaketaren esparrua, osotasun gisa ulertzeko: gizartean elkarrekin bizi diren erlijio, sinesmen eta uste sendoen multzo zabal gisa hartzeko, alegia. Ildo horretan, guneak sustatzera bideratu behar da estrategia, era guztietako uste edo sinesmenetako pertsonak nahiz kolektiboek gune horietan topo egin eta elkarrizketan jardun ahal izateko, eta horrela aniztasuna indartu dadin, adostasun zabalak sortu daitezen esparru politiko nahiz sozialean, eta gizarte-kohesioa indartu dadin. Era berean, jardun publikoak ez du aurreuposatu behar pertsonak erlijio jakin batekoak direla, eta argi bereizi behar ditu atxikipen instituzionala, identitate kulturala eta bizitzako jardunbideak, betiere pentsatu gabe pertsonak nahitaez direla erlijio-komunitate jakin bateko kide, haien jatorria edo familia-tradizioa dela-eta, eta, beraz, halakotzat tratatu gabe.

Azkenik, komeniko litzateke Eusko Jaurlaritzan erlijio-aniztasuna kudeatzeko unitate espezializatu bat izatea —jardun-eredu propioa izanda—, horren bidez ezagutza metatzeko, erakundean jarraitutasuna izateko eta Jaurlaritzako gainerako arloei aholku emateko.

3. JARDUN-ILDOAK ETA NEURRIAK

3.1. AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritzak pixkanaka txertatu du erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoa bere agenda instituzionalean, batez ere 2015etik aurrera; izan ere, urte hartan onartutako adierazpen instituzional batean, azpimarratu zuen erlijio-aniztasuna, berez, demokraziaren osasun onaren eta askatasunaren adierazle garrantzitsua dela²⁵. Urte horretan bertan, erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txosten bat egiteko eskatu zion aditu talde bati (Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioak eta Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak koordinatuta)²⁶. Dokumentu horretan, besteak beste, honako erronka hauek identifikatu ziren: botere publikoen eta erlijio-komunitateen arteko elkarriketarako egitura egonkorren beharra, Administrazio publikoaren barruan erlijio-aniztasunari buruzko eskumenak garatzea, eta elkar ezagutzea sustatzea, kulturen arteko bizikidetzaren oinarri gisa.

Harrezkero, hainbat ekimen instituzionalek zehaztu dituzte orientabide horiek. Horien artean nabarmentzekoak dira bai kultu-zentroi buruzko legearen aurreproiektua, bai erlijio-aniztasunari buruz egindako diagnostiko soziologikoak (Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 2012ko azterlana, esaterako), eta bai dimentsio hori esplizituki sartu izana 2012-2016 eta 2017-2020 aldietako bake- eta bizikidetzaren planetan. Plan horietan neurri espezifikoak txertatu ziren, hala nola ADOS Aholku Batzordearen sorrera, komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko, eta erlijio-aniztasunaren mapa egitea.

2023an, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lerkuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea onartu izana mugari izan zen araugintzan, lehen aldiz ezarri baitzuen arlo horretarako esparru autonomiko integrala. Legeak zenbait printzipio orokor definitzen ditu: erlijio-askatasuna bermatzea, tratu-berdintasuna, kultu-guneak modu ekitatiboan erabili ahal izatea, bizikidetzaren eta laikotasun instituzionala.

Lege horren garapenean, garrantzi handia hartu zuen EAEko Erlijioen arteko Kontseilua izango denak (gaur egun izapidetzen ari da haren osaera eta funtzionamendua arautuko duen dekretua). Organo aholku-emailea izango da, euskal erakundeen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) eta Euskadiko erlijio-konfesioen arteko elkarriketarako nahiz lankidetzarako gune egonkor gisa eratua.

Organo hori sortzeak aukera emango du erlijio- eta kultu-askatasunarekin lotutako ekimen edo erabakietan egitura egonkorra emateko erakundeen arteko solaskidetzari; indartu egingo du administrazioen eta erlijio-komunitateen arteko koordinazioa, eta esparru formal bat eskainiko du bai aholkularitza tekniko emateko bai erlijio-aniztasunarekin lotutako politika publikoen diseinuan parte hartzeko.

25 "Kultura arteko eta erlijio arteko bizikidetzaren gizarte plural, integratu eta integratzaile batean" adierazpena https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/6099/ADIERAZPENA_ERLIJIO_ARTEKO_BIZIKIDETZARAKO_BILERA_2015-03-20.pdf?1427107498

26 Eusko Jaurlaritza. (2015). *Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

3.2. JARDUN-ILDOAK ETA -PROPOSAMENAK

Orain hemen aurkeztuko diren jardun-ildoak eta -proposamenak garatzeko, zenbait behar eta proposamen hartu dira abiapuntutzat: 2015ean *Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena* delakoan identifikatutakoak, hain zuzen. Jardun-ildo bakoitzak honako hauek jasotzen ditu:

- a) abiapuntuko behar hori;
- b) esku-hartzeko eremu bakoitzean zer ulertzen den, horren mugaketa kontzeptuala; eta
- c) zenbait jardun-proposamen, txosten honetako aurreko ataletan zehaztutako esparruetatik abiatuta eguneratu, birformulatu eta garatuak, bai eta landa-lanean bildutako ekarpenak ere (4.1. puntua).



EAEko Erlijioen arteko Kontseiluaren prozesuari ekiteko Euskadiko erlijio-komunitateekin izandako lehen elkarrizketa-saioa (2025/06/26).

Honako hauek dira jardun-ildoak:

1. Errealitate sozio-erlijiosoa eta konfesioen ezagutza publikoa
2. Administrazioaren eta erlijio-erakundeen arteko harremanak eta elkarrizketa
3. Gizarte-ingurunearekiko, auzokideekiko eta komunikabideekiko harremanak
4. Kultu-zentroyen plangintza eta hirigintza-kudeaketa
5. Espazio publikoen eta titulartasun publikoko ekipamenduen erabilera
6. Denboraren antolaketa: laneko ordutegia, egutegi zibila eta gurtzarako denbora
7. Ehorzketak, hilerriak eta hileta-zerbitzuak
8. Elikadura eta erlijio-aginduak
9. Jantzera eta erlijio-adierazpena eremu sozial eta publikoetan
10. Sanitate-alderdiekin lotutako jardunbideak eta ohiturak
11. Erlijioen arloko prestakuntza eta alfabetatzea
12. Ikastetxeak eta erlijioaren irakaskuntza
13. Erlijio-arreta eta gurtzarako lekua zentro publikoetan
14. Herritarren segurtasuna eta erlijio-aniztasuna
15. Erlijio-askatasuna gauzatzeko eskumenen azterketa

1. ERREALITATE SOZIO-ERLIJIOSA ETA KONFESIOEN EZAGUTZA PUBLIKOA

2015ean, adierazi zen ezinbestekoa zela jakitea zer-nolako presentzia eta ezaugarriak dituzten erlijio-erakundeek EAEn, bai eta informazio horrek eguneratuta eta eskura egon behar zuela ere.

Auzi honen barruan, honako hauek sartzen dira: EAEko erlijio-erakundeen identifikazioarekin, presentziarekin, lurralde-banaketarekin eta ezaugarri nagusiekin lotutako elementu guztiak. Besteak beste, informazio hau biltzen du: nor diren, non ezarri diren, nola antolatzen diren, eta zer-nolako aitortpen formala duten, bereziki Erlijio Erakundeen Erregistroan inskribatzeari eta nortasun juridikoari buruzko alderdiak.

Era berean, barnean hartzen ditu erlijio-erakundeak ikusgai jartzeko egungo mekanismoak ere, hala nola kultu-zentroak sartzea mapetan, udal-direktorioetan edo informazio-plataformetan.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

EAEko erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioei eta jarrerei buruzko barometroa eta erlijio-aniztasunaren mapa mantentzea eta aldi berean behin eguneratzea.

Ikerketak eta txostenak bultzatzea, Barometroetan eta erlijiotasunari nahiz erlijio-askatasunari buruzko beste iritzi-azterlan batzuetan identifikatutako alderdi zehatzak sakontzeko, eta sustatzea sistematikoki txerta daitezela gai horiekin lotutako aldagaiak Eusko Jaurlaritzaren inkesta soziologikoetan.

Dirulaguntza-lerro bat ezartzea ikerketa-proiektuetarako, gehiago iker dadin erlijio-askatasunari eta eskubide hori gauzatzeari buruz nahiz erlijio-gertakariari eta -aniztasunari buruz, horrela emaitza zientifikoak eta esku hartzeko proposamen aplikagarriak lortzeko, euskal gizartean eragina izango dutenak, bai eta ekosistema akademiko propioa garatzen laguntzeko ere, arlo horretan etengabeko ezagutza sortze aldera.

Mekanismoak antolatzea, erakundeak Eusko Jaurlaritzaren erregistroan inskribatu ahal izateko –erregistro hori Estatuko Erregistroaren osagarri izanda–, horrela konfesioen ezarpenaren eta bilakaeraren ezagutza eta jarraipena egin ahal izateko, bai eta haiekin zuzeneko harremana izateko ere, eta Administrazioak aukera izan dezan erlijio-komunitateak ezagutzeko, haiek Estatuaren erregistroan inskribatu aurretik, hala plangintzarako eta elkarrizketa instituzionalerako informazioa izateko.

2. ADMINISTRAZIOAREN ETA ERLIJIO-ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK ETA ELKARRIZKETA

2015ean, azaldu zen elkarrizketa-bide egonkor eta argiak garatu behar zirela administrazioen eta erlijio-erakundeen arteko elkarrizketarako.

Auzi honetan, erreferentzia egiten zaie administrazio publikoen eta erlijio-erakundeen arteko harremanetarako guneei, kanalei eta mekanismoei. Barnean hartzen du parte hartzeko egitura formalak egotea edo ez egotea, noranzko biko komunikazioa egituratzeko modua, solaskideak identifikatzea, eta ekitaldi publikoetan erlijio-ordezkarriak egotea nahiz kargu instituzionalerako ordezkarriak erlijio-ospakizunetara joatea.

Hori guztia, kontuan hartuta harreman instituzionalek koherenteak izan behar dutela Estatuaren akonfesionaltasun-printzipioarekin eta erlijio-aniztasunaren tratamendu orekatuarekin.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Administrazio publikoetan eta erlijio-erakundeetan funtsezko solaskideak identifikatzea eta izendatzea, eta erreferentziazko pertsonen zerrenda eguneratu bat izatea, arloaren arabera (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hirigintza, etab.), komunikazio-kanalak berehala aktibatu ahal izateko, erlijio-aniztasunaren kudeaketarekin lotutako edozein auzi agertzen denean.

Administrazio publikoetan prestakuntza emateko politikak diseinatzea eta ezartzea, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin (IVAP) lankidetzan, funtzionarioei beharrezkoak diren gaitasunak emateko erlijio-aniztasunaren eta erlijio-askatasunerako eskubidearen kudeaketa publikorako. Horretarako, lehenetsuna emango zaie zenbait lanbide-profilari: beren eginkizunak direla-eta (hezkuntza, parte-hartzea, gizarte-zerbitzuak, osasuna, segurtasuna, gazteria, immigrazioa, etab.), gutxieneko eta nahitaezko prestakuntza behar dutenak erlijio-gertakariari, EAEen ezarritako konfesioei eta aplikatu beharreko arau-esparruei buruz. Prestakuntza hori Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioarekin koordinatuta antola liteke, dauden lankidetzan-planen esparruan.

Lankidetzan-hitzarmen espezifikoak sustatzea Estatuarekin lankidetzan-akordioak sinatuta dituzten erlijio-konfesioen eta Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren artean.

Protokolo bat izatea, Euskadin dauden erlijioetako ordezkariak EAEko erakundeek sustatutako ekitaldi publikoetara gonbidatu eta/edo joateari buruzkoa. Egoera horietarako, irizpide hau bete beharko litzateke: "denak edo inor ez".

Protokoloa bat egitea, erakundeak nahiz norbanakoak erlijio-ekitaldietara joateari buruzkoa, ondo bereizita zer diren erlijio-ekitaldiak eta zer erlijio-ospakizun hutsa. Horrelako protokolorik ez dagoen bitartean, erne jardun behar da, ez dadin sortu desorekarik, eta agintaritzak publikoa ez dadin identifikatu izaera erlijiosoko ospakizunekin.

EUDELekin lankidetzan, sustatzea EAEko udalak atxiki dakizkiola "Tolerantziaren aldeko Udallerriak" programari (Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioarena), udalerriei laguntzeko beren lurraldeko erlijio-komunitateei buruzko ezagutza hobetzen, erlijio-aniztasunaren udal-kudeaketa hobetzen, eta bizikidetzan- eta sentsibilizazio-ekintzak egiten.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak txertatzea Eusko Jaurlaritzak erlijio-erakundeekin duen harremanean, batez ere dirulaguntzak emateko prozesuetan eta erakundeen ordezkari-tz-guneetan, zenbait baldintza ezarrita bai emakumeek erantzukizun-zereginetan parte har dezaten sustatzeko, bai baloratu ahal izateko zer ekintza egin dituen erakunde bakoitzak aurreko urtean berdintasunaren arloan. Era berean, sustatzea erlijio-komunitateek parte har dezatela genero-berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzetan, eta bermatzea printzipio hori izango dela gidari erlijio-aniztasunaren arloko jarduketan publiko guztietan.

Erlijio-erakundeentzako prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta ezartzea, bereziki landuko duena indarrean dagoen arau-esparrua, elkarrean kudeaketa eta EAEko erakundeen funtzionamendua, horrela beren jarduteko gaitasuna indartu dezaten eta beren eskubideak hobeto ezagut ditzaten.

3. GIZARTE-INGURUNEAREKIKO, AUZOKIDEEKIKO ETA KOMUNIKABIDEEKIKO HARREMANAK

2015ean, hauteman zen elkarreragin positiboa indartu beharra zegoela erlijio-komunitateen, auzokideen eta komunikabideen artean.

Gai honek bereziki jorratzen du erlijio-komunitateen, herritarren eta gizarte-ingurunearen arteko elkarrekintza. Auzi honetan, barnean hartzen dira bizikidetzaren dinamikak, konfesioei lotutako gizarte-pertzepzioak, hiri-espazioan duten presentziari buruzko eztabaida komunitarioak, eta zenbait fenomeno, norberaren inguruan ekipamendu edo jardun jakin batzuk baztertzearekin lotuak (NIMBY efektu ezaguna, esaterako).

Era berean, komunikabideen zeregina ere jasotzen da, zenbait arlori lotuta: zer-nolako trataera duen oro har erlijio-aniztasunak, nola irudikatzen diren hedabideetan jardun, ospakizun edo talde espezifikoak, eta zer-nolako presentzia duten konfesioek hedabide publikoetan.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Jarduera-protokolo bat izatea, herritarrak kultu-zentroak irekitzearen nahiz handitzearen aurka agertzen direnerako edo erreakzio negatiboak gertatzen direnerako, bai eta bizilagunek kezak aurkeztzen dituztenerako ere, zaratei, pertsonen joan-etorriari edo aurreiritziei ("NIMBY") lotuta; protokolo horretan, gainera, lagun egiteko prozedura bat izatea, eta ondo definituta egotea zein diren goera gatazkatsuetarako bitartekotza-mekanismoak.

Prestakuntza-ikastaroen bultzatzea kazetariarentzat eta kazetaritza-ikasleentzat, erlijio-gertakariari buruzko informazioaren trataera hobetzeko, estereotipoak saihesteko eta gaia dagokion moduan jorratzeko, batez ere gutxiengo erlijiosoei buruzkoa denean.

Politika inklusibo bat diseinatzea Euskadiko erlijio-aniztasunari buruzko informazioaren trataerarako.

Gutxiengo erlijiosoei buruz, bereziki, eta erlijio-aniztasunari buruz, oro har, dauden aurreiritzi eta estereotipoak bukarazteko plan bat egitea.

"Erlijioen Gauda" ekimena sustatzea (Katalunian aurrera eramana), erlijio-aniztasun esanguratsua duten udalerriekin lankidetzan, erlijio-komunitateek beren bizitza eta jarduera erakuts dezaten hirigunean, elkarren ezagutza eta gizarte-onarpena sustatze aldera.

Dirulaguntza-lerro bat sortzea, erlijio-askatasuna eta erlijioen nahiz sinesmenen arteko elkarriketa sustatu dadin, honelako jardunak eginez: erlijio-askatasuna sustatu eta erlijio-arrazoiengatik jazarpenera edo diskriminazioa salatzeak; fede baten eta euskal kulturaren arteko elkarriketa bultzatzeak, edo ateismoaren nahiz agnostizismoaren eta erlijio-tradizioen arteko elkarriketa bultzatzeak; harreman ona sustatzeak erlijio-komunitate edo -taldeen eta haien ingurune sozial eta kulturalaren artean; eta EAEn dauden konfesioen esparruan giza eskubideak aitortu eta errespetatzeak.

4. KULTU-ZENTROEN PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-KUDEAKETA

2015ean, nabarmendu zen ezinbestekoa zela kultu-zentroak irekitzeko eta egokitzeko aplikatu beharreko hirigintza-esparrua argitzea eta antolatzea.

Auzi honetan, jorratzen da zer hirigintza-esparru aplika dakiekeen EAeko kultu-zentroeiei, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-zentroeiei buruzko Legea (2023) onartu izanaren testuinguruan. Lege hori aurrerapauso nabarmena izan zen, urteetan askotan hautemandako premia bati aurre egiteko. Legea indarrean sartzeko esparru komun bat ezarri zuen konfesio eta udalerrri guztientzat, eta orain erregelamendu bidezko garapenaren fasea zabaldu da.

Kultu-zentroeiei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea aintzat hartuta, komeni da arau espezifiko bat onartzea, zenbait kontu artikulatzeko: nola egin kultu-zentroen hirigintza-antolamendua, nola sartu jarduera sailkatuen araubidean, zein diren funtzionamendurako gutxieneko baldintza tekniko eta materialak, zer epe ezarri lehendik dauden zentroen egokitzapenerako, eta nola antolatu Eusko Jaurlaritzaren eta udalen eskumenak. Era berean, zenbait auzirekin lotutako kontuak jorratu behar dira: nola kokatu kultu-zentroak hiri-sarean, nola integratu tokiko bizitzan, nola eskuratu ekipamendu publikoak, eta komunitateari zer inplikazio dakarzkion erlijio-askatasuna gauzatzeko espazio egokiak izateak edo ez izateak.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Dekretu baten bidez erregelamendu bat garatzea eta onartzea, 28/2023 Legearen 10., 13. artikuluetan eta bigarren xedapen iragankorrean xedatutako edukiak sistematikoki integra daitezzen, eta horrela erraztu dadin benetan gauzatzea erlijio-askatasunerako oinarritzko eskubidea. Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak garatutako txostenaren arabera, dekretu horrek honako hauek jaso beharko lituzke:

- *Euskadin kultu-zentroak irekitzeko, eraberritzeko edo horiek egunero funtzionatzeko behar diren administrazio-izapideak sinplifikatzea, eta espediente berean bateratzea alde aurreko irekiera-jakinazpenaren prozesua eta beste edozein lizentzia edo baimen, zentroko ohiko jarduerak garatzeko edo unean uneko berrikuntzak egiteko beharrezkoa dena.*
- *Baldintza teknikoak eta materialak ezartzea —segurtasunekoak, osasungarritasunekoak, irisgarritasunekoak, babes akustikokoak, edukierakoak eta ebakuaziokoak—, bai eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko direnak ere (modu murriztaile eta proportzionatuan formulatuak, oinarritzko eskubide bat erabiltzeari eragiten baitiote, eta udal-araudiaren esku-hartzea mugatzeko irizpideren bat kontuan hartuta formulatuak ere bai, ez daitezzen gogortu ezarrita dauden gutxieneko baldintzak eta ez daitezzen gehitu baldintza gehiago justifikazio objektiborik gabe, horrek Legearen xedeen aurka egingo bailuke eta gainditu egingo bailuke haren eskumen-esparrua).*
- *Epe bat ezartzea, Legea indarrean sartzeko baldintza horiek betetzen ez dituzten kultu-zentroak egokitzeko.*

Baldintza horiez gain, honako hauek ere kontuan hartu beharko lituzke dekretuak:

- Erregelamenduan elementu espezifikoak sartzea, kultu-zentroak irekitzearen aurka herritarren artean ager daitezkeen erreakzioak prebenitzeko eta kudeatzeko, bitartekotza-, informazio- eta sentsibilizazio-tresnen bidez, eta udalerriekin batera.
- Erregelamenduan erlijio-komunitate guztien aitorten publikoa egitea; eta kultu-zentroak inguru periferikoetan kokatu behar dituztenentzat, bereziki, gomendatzen da ikusgarritasun-mekanismo osagarriak indartzea (tokiko mahaietan, erlijioen arteko topaketetan parte hartzea), tokiko bizitzan txertatzen laguntzeko.
- Aztertzea zer-nolako prozesua egin duen Kataluniak bere erregelamenduaren hedapenerako (kultu-zentroei buruzko Legea, 2009koa, eta Legea garatzeko Dekretua, 2010ekoa), identifikatzeko zer hobekuntza-puntu utzi dituen agerian esperientzia horrek, eta gomendio horiek EAEko erregelamenduan txertatzea.

Udalerriei legea aplikatzen eta jarraipena egiten laguntzea, orientabide argiak emanez nahitaez erreserbatu beharreko lurzoruari buruz, lizentziei buruz eta hirigintza-betekizunei buruz, eta jarraipen-mekanismoak ezartzea bai zailtasunak identifikatzeko eta bai tokiko hedapenean laguntzeko hala udalei nola erlijio-konfesioei.

Kultu-zentroak hobetzeko eta egokitzeko laguntzak sortzea (segurtasuneko, higieneko, irisgarritasuneko eta eragozpenak prebenitzeko jarduketak, etab.), kultu-zentroen Legea pixkanaka betetzen joan dadin errazteko.

Udal-langileentzako (batez ere ekipamenduak kudeatzeko arduradunentzako) informazio-ekintzak egitea, berma dadin prozeduretan komunitateek aukera bera izango dutela ekipamendu publikoak erabiltzeko, bai eta erregelamendua azaltzeko gidak egitea ere, hala udalerrientzat nola erlijio-komunitateentzat.

5. ESPAZIO PUBLIKOEN ETA TITULARTASUN PUBLIKOKO EKIPAMENDUEN ERABILERA

2015ean, ikusi zen irizpide argiak ezarri beharra zegoela erlijio-erakundeek ekipamendu publikoak eta bide publiko erabiltzeko.

2015etik, eta aurreko puntuan bezala, gauzak nabarmen aldatu dira. 8/2023 Legeak, Kultu-lekuei edo -zentroeiei eta erlijio-aniztasunari buruzkoak, behar horien zati handi bati erantzun dio; izan ere, tratu-berdintasunaren printzipioa ezarri du izaera erlijiosoko jardueretarako ekipamendu publikoak aldian behin erabiltzeko (5.1 artikulua); ahalbidetu du espazio publikoak lagatzea konfesio anitzen erabilerarako (5.2 artikulua), bai eta bide publikoa aldi baterako okupatzea ere, erlijioei lotutako ospakizun- edo kultura-jardueretarako (5.3 artikulua).

Hala ere, oraindik ez zaie erantzun 2015ean hautemandako premia batzuei, eta jorratu egin beharko dira, Legea garatzeko erregelamenduaren bidez edo politika osagarrien bidez.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Udalek ekipamendu publikoen erabilerarako protokoloak egin ditzatela sustatzea eta eginkizun horretan udalei laguntza ematea, bermatzeko protokolo horiek jasotzen dutela gizarte- eta erlijio-erakunde guztien arteko tratu-berdintasuna.

Informazio-materialak eta gida praktikoak sortzea udal-langileentzat nahiz erlijio-komunitateentzat, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskaera-prozedurei eta baldintzei buruzkoak, ahalbidetzeko indarrean dagoen lege-esparrua argi, homogeenoki eta diskriminaziorik gabe bete dadila.

Udal-esparruan laikotasun-printzipioaren interpretazio homogenea sustatzea, gomendioen, aholkularitzaren eta truke teknikorako guneen bidez, bermatzeko erlijio-erakundeak ez direla baztertzeko interes orokorrarekin bateragarriak diren jardueretan.

Udalei erraztea, egoki baderitzote, titulartasun publikoko espazioak antolatu ahal izatea, horietan noizean behin edo salbuespenez erlijio-ospakizunak, komunitate-topaketak edo prestakuntza-jarduerak egiteko, eta, horretarako, udalei orientazio teknikoak ematea, erabilera-modalitateei, lagapenari eta berme juridikoei buruz.

Udalei orientazioa eta laguntza ematea, erlijio-erakundeek sustatutako gizarte-jardueretarako finantza-baliabide publikoak emateko irizpideen aplikazioan.

6. DENBORAREN ANTOLAKETA: LANeko ORDUTEGIA, EGUTEGI ZIBILA ETA GURTZARAKO DENBORA

2015ean, adierazi zen aztertu egin behar zela zer mekanismo zeuden lan- eta hezkuntza-esparruetan erlijio-jardunak eta denboraren antolaketa bateragarri egiteko.

Auzi honetan, bi hauen arteko harremana lantzen da: erlijio-tradizio bakoitzaren berezko denborak (jaiak, ospakizunak, kulturako ordutegiak) eta lan-, hezkuntza- nahiz prestakuntza-inguruneetan denbora antolatzeko esparruak.

Fededunen ordutegiak erlijio-betebeharrekin bateragarri egiten saiatzeko jardunak biltzen ditu, bai eta zer-nolako elkarrekintza dagoen ere egutegi zibilaren (jaiegun ofizialak barne) eta hainbat konfesiorentzat esanguratsuak diren egunen artean.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Aztertzea zer aukera dauden malgutasun-teknikak sartzeko: jaiegunetako ordutegiak eta otoitz egitekoak...

Asteko atsedeen-egunei buruzko informazioa edukitzea eta aitorten formalerako bideak aztertzea.

Euskadin dauden erlijioetako jaiegunen egutegia edukitzea eta prestakuntza-kanpaina bat egitea Administrazio publikoko langileentzat.

Erljioen berezko ospakizunei eta egun bereziei buruzko informazioa hedatzeko kanpainak sartzeko sindikatuekiko lanean.

7. EHORZKETAK, HILERRIAK ETA HILETA-ZERBITZUAK

2015ean, hauteman zen EAEko erlijio-jardunbide aniztetera egokitu behar zela hileta-arloaren kudeaketa.

Auzi honek heriotzarekin lotutako zenbait alderdi biltzen ditu: errituekin eta espazioekin lotutakoak eta administratiboak; besteak beste, hilerrien kudeaketa, ehorzketei eta hileta-errituei buruzko arauak, eta tradizio desberdinen jardunbideetara egokitzea hileta-zerbitzuak.

Barnean hartzen ditu lurzati espezifikoen edo erreserbatuen kudeaketa eta udal-irizpideetan oinarritutako erabilera-baldintzak; udal-irizpide horien artean daude, esaterako, bizilekua, erlijio-erakundeekiko hitzarmenak, eta hilerrietan askotariko erlijioentzako edo erabilera inklusiboko espazioak egotea edo ez egotea.

Kontuan hartzen du, era berean, erlijioen jardunbide tradizionalak bateragarriak izatea indarrean dauden osasun- eta hileta-araudiekin.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

EAE n hileta-arloko plangintza bat bultzatzea, egoki jorratu daitezkeen hilerriekin, hileta-zerbitzuekin, kokalekuekin eta hilotzei buruzko alderdi sanitarioekin lotutako gaiak, lurralde osoaren ikuspegia hartuta, eta, horrela, berma dadin erlijio-askatasuna benetan gauzatzea eta EAEko konfesio guztien jardunbide nahiz errituak ahalbidetzea. Plangintza horren bidez, identifikatu ahal izango da zer eremutan ez zaien erantzuten beharrei behar bezala, eta udalerrien arteko koordinazioa indartu ahal izango da (hilerrien eta hileta-zerbitzuetarako establezimenduen mapa bat adostu, EAEko udalerrri guztiei zerbitzu eman ahal izango diena, geografian zehar ez dadin egon bikoiztasunik edo hutsune garrantzitsurik); gainera, hilotzekin lotutako alderdi sanitarioei buruzko adostasunen gidako²⁷ irizpideak integratu ahal izango dira (Osasun Sistema Nazionalako Lurralde arteko Kontseiluak 2025eko uztailan onartu zuen gida hori), erlijio-elementua esplizituki txertatuz eta gutxienezko estandar batzuk ezarriz, bermatzeko egoki eta errespetuz erantzungo zaiola lurralde osoko erlijio-aniztasunari.

8. ELIKADURA ETA ERLIJIO-AGINDUAK

2015ean, azpimarratu zen erlijio-tradizioetako elikadura-aginduei erantzun publiko egokia eman beharra zegoela.

Auzi honek aztertzen du zer elikadura-arau dauden hainbat erlijio-tradiziotan, hala nola aginduak, debekuak eta abereak hiltzeko prozedurak, bai eta zer lotura duten ere zentro publikoetan (ikastetxeak, osasun-zentroak, egoitzak, espetxeak) eskaintzen den elikadurarekin.

Hor sartzten da elikagai-ziurtagirien kontua (elikagaia halal nahiz kosher dela ziurtatzekoa, adibidez), elikadura-alternatibak eskaintzearena, eta ospakizun espezifikoetarako behar diren jardun bereziak (hala nola data jakin batzuetan udal-hiltegiak erabili ahal izatea).

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Bermatzea erlijioen elikadura-arauetara egokitutako menuak eskaintzen direla harrera-zentroetan, ospitaleetan, egoitzetan, gizarte-jantokietan, eguneko arretarako zentroetan eta espetxeetan.

Zaintzea gauzatzen dela egun garrantzitsuetarako hiltegiak erabiltzeko eskubidea (Bildotsaren Jairako animaliak hiltzeko, adibidez).

²⁷ Hemen eskuragarria: <https://www.sanidad.gob.es/areas/sanidadExterior/controlHS/consensoSanidadMortuoria.htm>

9. JANZKERA ETA ERLIJO-ADIERAZPENA EREMU SOZIAL ETA PUBLIKOETAN

2015ean, adierazi zen beharrezkoa zela argitzea zein diren erlijio-adierazpenari lotutako janzkerari buruzko irizpideak gizarte- eta hezkuntza-inguruneetan.

Auzi honetan, erlijio-esanahia duen janzkera jorratzen da, adierazpide pertsonal, identitarioa eta komunitarioa den aldetik.

Barnean hartzen du nola ageri den janzkera hori zenbait esparrutan (gizarte-inguruneetan, hezkuntza-inguruneetan eta zerbitzu edo establezimendu publikoetan), bai eta barne-araudien irizpideek zer-nolako eragina izan dezaketen ere janzkera horren erabileran.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, erreferentziazko gida bat egitea EAEko ikastetxeetan erlijio-aniztasuna kudeatzeari buruz

Ur-ekipamenduei dagokienez, gorputza estaltzen duten bainujantzien erabilera ahalbidetzeko neurriak sustatzea, baldin eta uretan erabiltzeko material espezifikoez eginda badaude eta segurtasun- eta higiene-araudak betetzen badituzte, horrela berdintasuna berma dadin igerilekuak erabiltzean eta ur-jarduerak egitean, eta ez dadin gertatu justifikaziorik gabeko bazterketarik.

10. SANITATE-ALDERDIEKIN LOTUTAKO JARDUNBIDEAK ETA OHITURAK

2015ean, hauteman zen ezinbestekoa zela erreferentzia-esparruak definitzea, erlijio-sinesmenek baldintzatutako egoeretan osasun-arreta emateko.

Auzi honetan, jorratzen da zer egoeratan egiten duten topo osasun-sistemako protokoloek erlijio-jardunbide, -muga edo -eskakizun jakin batzuekin.

Agertzen da nola jokatu pertsona batek edo haren familiak mugak edo baldintzak ezartzen dituenean prozedura mediko jakin batzuetarako, bai eta jardun zehatz batzuk eskatzen dituztenean ere, hala nola tradizionalki konfesio jakin batzuekin lotutako erritualak eta ebakuntzak.

Era berean, jorratzen da zer alderdi etiko planteatzen diren, egoera horiek zuzenean eragiten dutenean adingabeengan, profesionalengan eta pazientearen eskubideetan.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

EAEko erlijio-sinesmenek eta -kontzientziarekin lotutakoek osasun-arloko zer auzitan eragiten duten adieraztea, mapaketa edo azterketa baten bidez, ondo identifikatuta osasun-arretarekin lotutako jardunak, eskaerak, beharrak eta gatazka-egoerak nahiz doitu beharrekoak, horrela osasun-sistemak gaur egun zer neurritan jasotzen eta kudeatzen dituen (edo ez) ikusteko. Hortik abiatuta, nola jardun jakiteko irizpideak eta orientazioak landu beharko lirateke, betiere koherenteak izanda erlijio-aniztasuna kudeatzeko euskal ereduarekin, erreferentzia izan daitezen Osakidetza-entzatzat, osasun-zentroentzatzat eta zerbitzu soziosanitarioentzatzat.

11. ERLIJOEN ARLOKO PRESTAKUNTZA ETA ALFABETATZEA

Argi ikusi da ezinbestekoa dela zenbait gairi aurre egitea: ezjakintasun orokorrari (batez ere gazteen artean), erlijio-dimentsioa ikusezin bihurtzeko presio sozialari, gorroto-diskurtsoari, hedabideen desinformazioari eta eskola-curriculumean erlijio-edukirik ez agertzeari.

Proposatzen da programa integral bat abiatzea EAEn erlijioen arloan alfabetatzeko, horrela hobeto ezagutu eta ulertzeko erlijio-gertakaria eta erlijio- nahiz sinesmen-aniztasuna, aurreiritziak murrizteko, haien balio kultural, sozial eta pertsonala aitortzeko, bizikidetzara errazteko eta erlijio-askatasuna oinarritzeko eskubide gisa indartzeko.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Erljioen arloan alfabetatzeko edukiak sartzeko hezkuntzaren esparruan. Komeniko litzateke erlijio-gertakariari, erlijioen historiari eta erlijioen arteko elkarriketari buruzko gaiak lantzea, bizikidetzarako tresnak diren aldetik.

Prestakuntza espezifikoa diseinatzea, EAEko irakasleentzako etengabeko prestakuntzaren sistemak aitortua eta homologatua, maila guztietako irakasleentzat, hainbat gairi buruzkoa: erlijio-aniztasuna, erlijio-gertakariaren kudeaketa, ikasleen eskubideak, jaiak, erlijio-jardunak, gatazkak kudeatzeko tresnak, eta gorroto-diskurtsoak identifikatu eta lantzeko gaitasunak. Etengabeko prestakuntzaren ohiko eskaintzan txertatu beharko da prestakuntza hori, aitorten ofiziala izan beharko du, formatu puntualak saihestu beharko dira, eta ziurtatu beharko da irakasle guztiek jasoko dutela (ez soilik jada sentsibilizatuta daudenek). Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioarekin koordinatuta antola liteke prestakuntza hori, jada badagoen lankidetzaren planaren esparruan.

Erreferentziazko Erljioen arteko Gune bat sortzea EAEn, tresna egonkorra izan dadin erlijio-aniztasunaren, erlijio-askatasunaren eta erlijioen arteko elkarriketaren arloan sentsibilizatzea, prestatzea, elkarriketa bideratzeko eta lagun egiteko, bai herritarrentzat, bai hezkuntza-sistemarentzat eta bai administrazio publiko guztientzat. Aukera emango luke a) hezkuntza formala eta prestakuntza instituzionala osatzeko, ikaskuntza esperimenteren bidez (testigantzak entzutea; erlijio-komunitateekiko topaketak egitea; guneak antolatzea, gogoeta gidatuak egiteko, balioei, eskubideei eta bizikidetzari buruz...); b) esparru partekatu bat eskaintzeko, eta sare bat sortzeko, elkarrekin lotu daitezkeen eskolak, gizarte- eta erlijio-erakundeak, administrazioa eta mundu akademikoa; eta c) erlijio-aniztasunaren aitorten instituzional argia eta epe luzerako begirada erakusteko. *Lehendik dauden adibide batzuk*: Migra Studium fundazioaren Erljio arteko Gunea Bartzelonan (<https://www.migrastudium.org/es/espacio-interreligioso>), eta Erljioen Etxea Hannoverren (<https://haus-der-religionen.de/de>).

Berariazko balia bideak lantzea, erlijio-aniztasuna egoki kudea dadin jardun publikoaren esparru nagusietan (hezkuntza, osasuna, espetxeak, lan-harremanak, espazio publikoaren erabilera, hiletaz bitzuzak eta hilerriak, etab.), eta horien berri zabaltzea.

12. IKASTETXEAK ETA ERLIJOAREN IRAKASKUNTZA

2015ean, adierazi zen, sinesmen-aniztasunaren testuingurua kontuan hartuta, beharrezkoa zela berrikustea nola dagoen antolatuta erlijio-irakaskuntza.

Auzi honetan, lantzen da zer araubide duten ikastetxe publiko eta itunduek erlijio-irakaskuntzaren arloan, erlijio jakinekiko akordioak direla-eta. Honako hauek hartzen ditu barnean: hainbat tradizioren presentzia curriculumean, derrigorrez eskaini beharraren eta borondatez hautatzearen esparrua, zer irizpide dauden irakasleak hautatzeko eta kokatzeko, zenbat ikasle behar den ikasgaia eskaintzeko, eta zer inplikazio dituen ikastetxeen antolamendurako. Kontuan hartzen du, era berean, zer tentsio dauden hiru elementu hauen artean: sinesmen-aniztasuna, hezkuntza-sistemaren egitura eta konfesionaltasun-printzipioa.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

EAEko ikastetxeetan erlijio-irakaskuntza bermatzeko lanean jarraitzea, erlijio-aniztasuna aintzat hartuta, eta arreta berezia eskainiz erlijio-irakasgaia Legearen esparruan ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ematea eska dezaketen gutxiengo konfesioetako familiei.

Erljioko irakasleei eskatzen zaien prestakuntza: proposatu da Administrazioak gutxiengo konfesioak orientatzea eta aholkatzea erlijioa irakasgaia emateko beharrezkoak diren betekizunei eta egiaztapenei buruz.

13. ERLIJO-ARRETA ETA GURTZARAKO LEKUA ZENTRO PUBLIKOETAN

2015ean, hauteman zen beharrezkoa zela osasun-zentroetan eta espetxeetan erlijio-arreta jasotzeko aukera harmonizatzea.

Auzi honetan, osasun-zentroetan eta espetxeetan erlijio-arreta jasotzeko eskubidea sartzen da, bai eta zerbitzu hori emateko zer eredu dauden ere.

Barnean hartzen ditu zentro horietan gurtzarako espazioak erabiltzeko aukera, espazio horien ezaugarriak eta kudeaketa, kultu-ministroak horietan sartzeko modua, zentroekiko koordinazioa, eta zer alde dauden bi eredu hauen artean: erlijio-arreta diru publikoaz finantzatuta dutenak, eta erabiltzaileek hala eskatzen dutenean erlijio-arretaren arduradunei libre sartzzen uzten dietenak.

Era berean, aztertzen da zer-nolako erlazioa dagoen zerbitzu horien antolaketaren eta konfesioen arteko berdintasunaren printzipioaren artean.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Identifikatzea ea zentro publikoetan badagoen gurtzarako edo erlijio anitzentzako espaziorik, eta mota horretako lekuen eskaintza proposatzea. Lehentasuna ematea EAEko ospitaleetan erlijio anitzentzako espazioak antolatzeari.

Erljio-askatasunaren erabilera berdina bermatzea zentro publikoetan erlijio-arreta jaso nahi denean, ez bakarrik pertsonak beren kabuz beren erlijio-betebeharrak bete ezin dituztenean, baizik eta, horrez gain, erlijio-arreta edo arreta espiritualak behar dutenean beste zenbait arrazoiengatik (zentro batean barneratuta egotea, tratamendu bat jaso beharra, kalteberatasun-egoeran egotea, sufrizten egotea edo premia espiritual handia izatea), beren egonaldian zehar (ospitaleetan nahiz arreta-zentroetan, adibidez). Horretarako, besteak beste, eskura jarri beharko litzateke zerbitzu horri buruzko informazioa, kultu-ministroen direktorio eguneratua sortu, eta erlijio-konfesioekin hitzarmenak sinatu.

14. HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ERLIJIO-ANIZTASUNA

2015ean, nabarmendu zen segurtasun-kidegoen prestakuntza indartu beharra zegoela, baita haien eta erlijio-komunitateen arteko koordinazioa ere.

Auzi honetan, lantzen da zer-nolako harremanak izan behar dituzten elkarren artean segurtasun-indar nahiz -kidegoek eta erlijio-komunitateek espazio publikoetan, erlijio-ospakizunetan eta kultu-zentroetan.

Barnean hartzen ditu jarduera-protokoloak, aplikatzekoa den araudiaren ezagutza, koordinazio-mekanismoak eta polizia-kidegoak erlijio-aniztasunean prestatzea, hori guztia funtsezkoa den aldetik haien esku-hartzeak egokiak eta errespetuzkoak izateko.

Kontuan hartzen du, era berean, zeinen garrantzitsua den elkarrekiko konfiantza izatea eta etengabeko elkarriketarako nahiz prebentziozko elkarriketarako bideak edukitzea.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Polizia-agenteei prestakuntza ematea erlijio-askatasuna arautzen duten araudiari eta legeei buruz, bai eta erlijio-gertakaria eta -aniztasuna tratatzeko gaitasunei, trebetasunei eta jarrerari buruz ere.

Bermatzea segurtasun-agenteei ezagutzen dituztela kultu-zentroetarako araudia eta legeak.

15. ERLIJIO-ASKATASUNA GAUZATZEKO ESKUMENEN AZTERKETA

Hainbat arlotako auzietan aipatutakoaz gain, ezinbestekoa da lan-ildo bat txertatzea, identifikatzeko nola bermatzen den erlijio-askatasunaren oinarriko eskubidearen benetako erabilera Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako eskumen guztietan. Horrek berekin dakar sistematikoki aztertzea erlijio-askatasuna gauzatzeko aukera duten eremu guztiak.

Helburutzat hartzen du Eusko Jaurlaritzari ikuspegi estruktural eta koherentea ematea erlijio-askatasunak politika publiko bakoitzean duen lekuari buruz, argi utzita zein diren erantzukizunak, tentuz tratatu beharreko gaiak, hobetu beharreko alderdiak eta jarduteko irizpideak, modu koordinatu eta homogeneoan jardun ahal izateko erakunde-sistema osoan.

Azterketa horren osagarri, eskumenen erabilera horretan kontrako noranzkoko irakurketa ere egin daiteke, bigarren mailan: identifikatzea Eusko Jaurlaritzaren ustez herrialdearen zer behar eta helburu partekatu, adostu eta bultzatu daitezkeen erlijio-erakundeekin. Planteamendu hori erlijio-konfesioek berek ere agertu zuten, EAEko Erlijioen arteko Kontseiluaren aurretiko bigarren elkarrizketa-saioan (2025eko iraila).

Ikuspegi horren adibide gisa aipa daiteke, besteak beste, erlijio-komunitateetan euskararen erabilera soziala sustatzea elkarbizitza- eta kohesio-hizkuntza gisa, euskara eguneroko bizitzan (ez bakarrik) erabil dezatela bultzatuz, zenbait ekintzaren bidez: tradizio bakoitzeko oinarritzko testuak euskaraz idatzita izanda; erlijio-komunitateen espazio komunak euskaraz seinaleztatuta; euskara erabilia bai informazio-materialetan, bai erakundeen kanal digitaletan, webguneetan eta sare sozialetan, eta bai jarduera publikoetan, ospakizun eta ekitaldi irekietan; eta, horrez gainera, erlijio-komunitateek hizkuntza ikasteko ekimenetan parte hartuta, hala nola euskara-ikastaroetan, euskaraz mintzatzeko guneetan, eta erlijio desberdineko kideez osatutako bikote linguistikoetan.

JARDUN-PROPOSAMENAK:

Eusko Jaurlaritzaren eskumen guztiak aztertzea, ikusteko arlo sektorial bakoitzean zer elementuk duten eragina erlijio-askatasunerako eskubidearen benetako bermean, eta, horretarako, eskumenen mapa bat egitea, erantzukizunak ere jasoko dituena, eta jarduteko irizpideak eta proposamenak zehaztea ahalbidetuko duena.

Horrez gainera, ikustea zer esparrutan lagundu dezaketen erlijio-erakundeek Eusko Jaurlaritzaren interes orokorreko helburuetan eta politika publikoetan (batez ere, itun nazionalen, herrialde-akordioen nahiz adostasun zabaleko beste esparru estrategiko batzuen bidez egindakoetan).

3.3. 2026-2029 ALDIRAKO LAN-EGITASMOA

Orain, 2026-2029 aldirako lan-egitasmoa aurkeztuko dugu. Hortxe azalduko dugu nola zehaztu aurreko atalean agertutako jardun-proposamenak hurrengo lau urteetarako jardunean, eta zeri eman lehentasuna.

Garai Berriak, Bizikidetzak eta Belaunaldien arteko Itunaren Estrategia delakoaren ildoari jarraitzen dio, Eusko Jaurlaritzako Aniztasun, Bizikidetzak eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritzaren estrategia markoa den aldetik. Eta helburu nagusitzat du erlijio-aniztasunaren ildoaren funtzionamenduari eta proiektio estrategikoari forma ematea, zuzendaritza horren eta Gobernuaren barruan.

Lan-egitasmo honen ikuspegiak erlijio-gertakariaren ulermen zabala du abiapuntu, eta horretarako ezinbestekoa da eskubideak bermatzea, aitorpen sinbolikoa sustatzea behar bezalako ezagutzan oinarrituta, eta etengabeko espazioak sortzea herritarren elkarriketarako nahiz partaidetzarako. Hori dela eta, hiru ildo estrategiko handiren inguruan egituratu da egitasmoa:

- a) **Erlijio-askatasunerako eskubidea osorik bermatzea:** zehatz-mehatz identifikatuta zer ekintza egin behar dituen Eusko Jaurlaritzak ziurtatzeko eskubide hori benetan gauzatzen dela bere eskumen-esparru guztietan (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hirigintza, hileta-arloa, ekipamendu publikoak, etab.), eta udalei laguntza handiagoa emanda.
- b) **Ezagutza handiagoa lortzea:** datu gehiago eta ezagutza handiagoa nahiz sakonagoa izateko EAEko errealitate sozio-erlijiosoari buruz, baita lurraldean baliabide akademiko handiagoa izateko ere: barometroak, mapak, ikerketak, dirulaguntza-lerroak.
- c) **Gizarte-eragin handiagoa izatea:** prestakuntzarako, sentsibilizaziorako eta elkarriketarako politikak eginez herritarrentzat eta ikastetxeentzat, hobeto ulertu eta ezagutu dadin bai erlijio-gertakaria eta bai sinesmen-askatasuna, estereotipoak murriztu daitezken, eta, azken batean, bizikidetzak hobetu dadin.

2026an, EAEko Erlijioen arteko Kontseilua abian jartzeak artikulatu, lagundu eta indartu egingo du aldi osorako lana, kontseilu hori gune egonkorra izango baita elkarriketarako, partaidetzarako, aholkularitzarako eta erakundeen erreferentziarako, ildo estrategiko horiek guztiak garatu daitezken.

2026

ERLIJIO-ASKATASUNA BERMATZEA

- Dekretua onartu eta EAEko Erlijioen arteko Kontseilua eratzea.
- Eskumenen zeharkako azterketa bat egitea, ikusteko Eusko Jaurlaritzaren arlo sektorial bakoitzean zer puntutan gauzatzen den erlijio-askatasuna (osasuna, hilotzekin lotutako alderdi sanitarioak, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, zentroetan barneratutako enkladurak, erlijio-arreta, etab.), eta erantzukizunen nahiz puntu kritikoaren mapa egitea.
- Kultu-zentroei buruzko Legea erregelamendu bidez garatzeko prozesua hastea, erregelamenduaren bloke nagusiak definituz, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak emandako gomendioaren arabera (aurreko puntu honetan aipatuak: *4. Kultu-zentroen plangintza eta hirigintza-kudeaketa*), eta Kataluniako Generalitateak bere lege eta erregelamenduekin duen esperientzia kontuan hartuta.

- Jardunbide egokien gida bat egitea, erlijio-askatasunaren bermeak txertatzeko EAEko udalerrietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan (HAPO).
- Funtsezko solaskideak identifikatzea eta izendatzea Eusko Jaurlaritzan eta erlijio-erakundeetan, eta zerrenda eguneratu batean biltzea, arloka (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hirigintza, segurtasuna, etab.). Kontuan hartuko da solaskide horiek erakundeak ordezkatzen dituztela, ez tradizio bateko herritar guztiak oro har.
- IVApekin lankidetzan, berariazko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea administrazio publikoetako langileentzat, erlijio-aniztasunaren kudeaketari eta erlijio-askatasuna baliatzeari buruzkoa, ondo zehaztuta bai lehentasunezko profilak eta bai oinarritzko edukiak.
- Lankidetzak-hitzarmen bat formalizatzea Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioarekin, elkarrekin koordinatzeko zer jarduera egin behar diren Euskadin erlijio-askatasuna eraginkortasunez gauzatzeko zenbait alorretan: prestakuntzan, toki-administrazioentzako aholkularitzan, azterlanetan, zabalkundean, sentsibilizazioan eta babesean.
- Estrategia bat abian jartzea, udalak “Tolerantziaren aldeko Udallerriak” programari atxikitzea sustatzeko, erlijio-aniztasun handiena dutenak lehenetsita eta lana EUDELekin antolatuta. Erlijio-aniztasunaren kudeaketan ibilbide bat egin duten udalerriekin koordinatzea, elkarren artean trukatu ahal izateko esperientziak, jardunbide egokiak eta ikaskuntzak (Erlijioen arteko Kontseiluaren esparruan).
- Diagnostiko bat egitea, ikusteko zer-nolako erlijio-arreta ematen den EAEko zentro publikoetan (bereziki, kultu-askatasunerako eskubidea eta erlijio-arreta bermatzeko betebeharra duten zentroetan: espetxeak, ospitaleak eta erabiltzaile batzuen askatasuna mugatzen duten beste zentro publiko batzuk, hala nola adingabeen harrera-zentroak). Diagnostiko horretan sartzea, gainera, zer egoera eta premia dituzten bestelako zentro batzuetan, hala nola erlijio-arreta emateko betebeharririk izan gabe ere erlijio-arreta gauzatzeko guneak eskain ditzaketen horietan —edo, gutxienez, erlijio-konfesio anitzentzako espazioak²⁸ eduki ditzaketen horietan— (unibertsitateak eta goi-mailako hezkuntzako zentroak, hilerriak, beilatokiak, adinekoen zentroak, beste topagune batzuk, etab.).
- EUDELekin batera, hiletan arloko plangintza autonomikoa egiteko lanak abiatzea, ondo integratuta erlijio-aniztasunaren ikuspegia eta hilotzekin lotutako alderdi sanitarioei buruzko adostasunen gida.

EZAGUTZA HANDIAGOA

- EAEko erlijio-aniztasunaren mapa eguneratzea.
- Beste hauen datuekin kontrastatzea: Espainiako Erlijioari eta Sinesmenei buruzko Barometroa, BREC (Espainiako erlijio-aniztasunaren behatokia), eta Ikuspegiren Neurtu (2023) barometroa eta Zabaldur txostena. Barometroen aldizkakotasuna adostea, urte berean bat etor ez daitezen, eta BRECek Euskadiko populazio-lagin handiagoa jaso dezan bultzatzea.

28 Díez de Velasco, F. (2011). *Guía técnica para la implementación y gestión de espacios multiconfesionales para la gestión pública de la diversidad religiosa*. Madrid: Observatorio del Pluralismo Religioso en España

- Dirulaguntza-lerro bat diseinatzea erlijio-askatasunaren, erlijio-gertakariaren eta sinesmen-aniztasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako, irizpidetzat ezarrita genero-ikuspegia txertatzea, eta berariaz ezarrita azterketa-ildo bat, iker dadin zer-nolako rola duen emakumeak Euskadiko erlijio-komunitateetan, eta zer-nolako erresistentzia, jardunbide egoki eta eraldaketa-prozesu dauden berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan.
- Lankidetzaren hitzarmen batek gitea Espainiako Gobernuaren Presidentetzako Ministerioarekin, Erlijio Erakundearen Erregistroaren kudeaketaren parte izateko eta mekanismo egonkorak ezartzeko informazio-trukerako eta lankidetzaren teknikorako, barnean hartuta bai sarbidea izatea EAEn jarduten duten erlijio-erakundearen erregistro-datuetan eta bai informazioa aldi berean behin bidaltzea, errazagoa izan dadin erregistroa eguneratzea eta Euskadiko erlijio-komunitateei aholkularitza ematea.
- Biztanleria musulmanari buruzko ADOS diagnostikoaren jarraipena eta koordinazio-lanak egitea (ADOS 2023-26 Planaren esparruan egingo dira), bai eta ADOS Aholku Batzordearekiko eta lan-egitasmo honekiko koordinazio orokorra ere, berma dadin egiten diren jarduerak osagarriak eta koherenteak direla.

GIZARTE-ERAGINA

- Erlijio-aniztasunari buruzko webgune espezifiko bat diseinatzea eta martxan jartzea Eusko Jaurlaritzaren atari instituzionalaren barruan, hor zentralizatzeko Zuzendaritzak erlijio-aniztasunaren arloan duen informazio guztia (jarduerak-ildoak, zerbitzuak, baliabideak, araudia, etab.), bai eta Erlijioen arteko Kontseiluaren berezko atal bat sartzeko ere, dokumentuen nahiz akordio eta jardueren berri zabaltzeko.
- Hezkuntza Sailarekin batera, irakasleentzako prestakuntza espezifiko eta homologatu baten eskema definitzea, erlijio-aniztasunari, erlijio-gertakariaren kudeaketari, gatazkei eta gorroto-diskurtsoei buruzkoa, ondoren etengabeko prestakuntzan sartzeko.
- Euskadin erreferentzia izango den Erlijioen arteko Gunearen eredia egiten hastea (proposamen pedagogikoa, funtzioak, kokapena, antolaketa). Zentro publikoetako erlijio-aniztasuneko espazioak (gorago deskribatuak) ez bezala, hau ez litzateke izango espazio konfesionala, baizik eta erlijio-aniztasunari buruzko ikaskuntzarako nahiz prestakuntzarako eta erlijioen arteko topaketarako espazioa. Zabalago garatzen da proposamena 3.2. puntuan ("Jardun-ildoak eta proposamenak"), 11. atalean ("Erlijioen arloko prestakuntza eta alfabetatzea").
- Lehen aldiz "Erlijioen Gaua" edo kultu-lekuetan atea irekitzeko antzeko ekimenen bat sustatzea, erlijio-aniztasun esanguratsua duen EAeko hiri batekin lankidetzan.

2027

ERLIJIO-ASKATASUNA BERMATZEA

- Kultu-zentroei buruzko Legearen erregelamendua onartzen duen Dekretua onartzea, honako elementu hauek gehituta: udalei laguntzea, gizartean sor daitezkeen erreakzioen kudeaketa, hizkuntza ulergarria erabiltzea eta hiri-periferian kokatutako komunitateak ikusgarri egiteko irizpideak.

- Udalei laguntzeko programa bat hedatzea, kultu-zentroen Legea eta erregelamendua aplikatzeko: lurzoru-erreserbak, lizentziak, hirigintza-eskakizunak eta bitartekaritza-mekanismoak.
- Jardunbide egokien gida bat egitea, jakiteko nola laga eta erabili espazio eta ekipamendu publikoak aldi baterako, bertan erlijio-ekitaldiak eta -ospakizunak egin daitezten. Eta bide publikoa nola erabili jakiteko. Gida horretan sartzea, gainera, erretiro espiritualei eta egonaldi luzeagoko erlijio-jarduerei lotutako kasuistikak ere.
- Udal-langileentzako prestakuntza-ekintzak bultzatzea, jakin dezaten nola aplikatu kultu-zentroi buruzko araudia eta ekipamendu publikoen erabilerari buruzkoa.
- Erlijio-erakundeentzako prestakuntza-programa egonkor bat abiaraztea, zenbait gairi buruzkoa: arau-esparrua, elkarteen kudeaketa, Administrazioarekiko harremana, zerga-alderdiak eta Ogasunarekiko harremanak, eta abar; hori guztia, arreta berezia jarrita erlijio-erakunde txikienetan edo antolamendu-egitura eskasa dutenetan.
- Prestakuntza-programa egonkor bat hastea erlijio-lidergoaren arduradunentzat eta erlijio-erakunde nahiz -komunitateentzat, susta dadin bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta bai genero-indarkeriaren nahiz jazarpenaren prebentzioa.
- Eskumena duten sailekin koordinatzea, irizpideak adostu ditzaten ur-ekipamenduetan gorputza estaltzen duten bainujantzien erabilera ahalbidetzeari buruz.
- Zentro publikoetan (hezkuntzakoak, osasun-zentroak, egoitzak, espetxeak, etab.), erlijio-aginduetara egokitutako elikadura eskaintzeko irizpide komunak operatibo bihurtzea (araudiak hala onartzen duenean), eskumena duten sailekin koordinatuta.
- Hileten arloko plangintza autonomikoa garatzea (baita horien garapenerako gida bat ere), gabeziak identifikatzeko eta hilerrietarako nahiz hileta-zerbitzuetarako irizpide komunak hartzeko (barnean hartuta erlijio-arrazoiengatiko errausketa-epeen eta baldintzen azterketa).
- Zentro publikoetan (ospitaleak, espetxeak eta goi-mailako hezkuntzako zentroak) erlijio anitzentzako espazioak antolatzea esperientzia pilotu gisa, eta erlijio-arretarako hitzarmenak formalizatzea hala eskatzen duten konfesioekin, barnean hartuta kultu-ministroen lehen direktorioa egitea.
- Ikastetxeetan erlijio-aniztasuna kudeatzeko erreferentziazko gida bat egitea eta zabaltzea.
- 2026ko zeharkako eskumen-azterketan ikusiz gero lehentasuna eman behar zaiola jarduera batzuk egiteari, egitasmoan premiazkoak eta bideragarriak direnak sartzea (edo jada aurreikusita dauden neurriak beste eremu batzuetara zabaltzea), eta gainerakoak gerorako uztea.

EZAGUTZA HANDIAGOA

- Erlijio-askatasunari eta sinesmen-aniztasunari buruzko ikerketa bultzatzeko, laguntzen urte anitzeko lehen deialdia abian jartzea.
- EAEko erlijio-erakundeen erregistrarako diseinu operatiboa hastea (eremuak eta erabilerak zehaztea, Estatuko erregistroarekiko lotura eta komunitateekiko harreman-protokoloak).

GIZARTE-ERAGINA

- Irakasleentzako prestakuntza espezifikoa abian jartzea etengabeko prestakuntzaren barruan, urtero hezkuntza-maila desberdinetarako.
- Erlijioen Gauaren bigarren edizioa egitea, aurreko urteko esperientzia pilotua sendotzeko, eta lehen edizioa sustatzea erlijio-aniztasun esanguratsua duen beste udalerrri batean edo bitan.
- Dirulaguntza-lerro bat ezartzea erlijio-askatasuna eta erlijioen nahiz sinesmenen arteko elkarrizketa sustatzeko (betekizun eta balorazio-baremo gisa genero-berdintasuneko irizpideak sartuta, bai eta aurreko ekitaldian berdintasunaren arloan egindako ekintzen ebidentziak erakutsi beharra ere).
- Plan bat diseinatzea erlijio-aniztasunari buruzko estereotipoei eta aurreiritziei aurre egiteko, barnean hartuta kazetarietzako prestakuntza eta komunikazio publikoko ekintzak.

2028

ERLIJIO-ASKATASUNA BERMATZEA

- Protokolo instituzional bat egitea, EAEko erakundeek ekitaldi publikoetara erlijio-konfesioetako ordezkariak gonbidatzeari eta/edo bertaratzeari buruzkoa eta agintariak erlijio-ospakizunetara joateari buruzkoa, bermatuta akonfesionaltasun-printzipioarekiko tratamendua orekatua eta koherentea izango dela.
- EAEko eta tokiko erakundeetako funtzionarioentzako IVAPen prestakuntza-ekintzak modu erregularrean ezartzen hastea.
- Zentro publikoetan erlijio aniztasuneko espazio gehiago prestatzea, 2026ko diagnostikoan eta 2027ko esperientzia pilotuan hautemandako beharrak kontuan hartuta.
- Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoarekin, ekipamendu publikoak eta bide publikoak erabiltzeko udal-protokoloak egin daitezkeen sustatzea, tratu-berdintasuna eta laikotasun-printzipioaren interpretazio komuna bermatzeko; eta lurralde guztietan irizpide komunak izatea.
- Segurtasun-kidegoei prestakuntza ematea bai erlijio-askatasunari nahiz -aniztasunari buruz eta bai kultu-zentron araudiari buruz.
- Kultu-zentroak hobetzeko eta egokitzeko urte anitzeko dirulaguntzak sortzea, erraztu dadin pixkanaka betetzen joatea kultu-zentron Legea eta hortik eratorritako erregelamendua (genero-berdintasuneko irizpideak sartuta betekizun eta balorazio-baremo gisa, bai eta aurreko ekitaldian berdintasunaren arloan egindako ekintzen ebidentziak erakutsi beharra ere).

EZAGUTZA HANDIAGOA

- Erlijio-aniztasunari buruzko Barometroaren 2028ko edizioa egitea, bertan barnean hartuta bai erlijio-aniztasunarekiko zer pertzepzio eta jarrera dauden, bai euskal herritarrek erlijioarekin eta sinesmenekin zer-nolako harremana duten.

- Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin koordinatzea, erlijio-askatasunari, erlijio-gertakariari eta sinesmen-aniztasunari buruzko aldagaiak sartzeko Eusko Jaurlaritzaren inkesta soziologikoetan.
- Ikerketarako dirulaguntzen ildoak finkatzea eta emaitzak gizarteratzeko jardunaldi bat egitea.

GIZARTE-ERAGINA

- Erreferentziatzeko Erlijioen arteko Gunea inauguratzea eta jardueren urteko lehen programa diseinatzea (ibilbide pedagogikoak, prestakuntza-jarduerak, erlijioen arteko topaketak, etab.).
- “Erlijioen gaua” ekimena beste bi udalerritara zabaltzea, eta aurreko edizioetako udalerrietakoak mantentzea, indartzea eta jarraipena ematea.
- Erlijio-aniztasunari buruzko estereotipoak eta aurreiritziei aurre egiteko egitasmoaren ekintzak abian jartzea.
- Erlijioen arteko Kontseiluaren bidez, ikusaraztea zer ekimen egiten dituzten erlijio-konfesioek elkarrekin guztion ongizaren eta komunitate-ekintzaren alde, bai eta erlijio-estigmatizazioaren aurka borrokatzeko ere.

2029

ERLIJIO-ASKATASUNA BERMATZEA

- EAEko konfesioen jaiegunen egutegia egitea eta zabaltzea, Administrazio publikoan erabiltzeko, eta horrekin batera barne-informazioko ekintzak ere egitea; gainera, egutegiaren gaia sindikatuekiko elkarrizketan erabiltzea, honako gai hauek lantzen direnean: nola kudeatu erlijio-aniztasuna lan-denboretan nahiz atsedendaldietan, eta **noiz antolatu** enplegu publikorako deialdiak nahiz hautaketa-prozesuak.
- Udalei orientazioa eta laguntza ematea, erlijio-erakundeei berek sustatutako gizarter-jardueretarako finantza-baliabide publikoak emateko irizpideak aplikatu behar dituztenean, ondo bermatuta egon dadin bai tratu-berdintasuna, bai gardentasuna eta bai akonfesionaltasun-pintzipioarekiko koherentzia.
- Udaletan kultu-zentroen Legearen eta hura garatzeko erregelamenduaren aplikazioa sendotzea, inplementazioaren jarraipen teknikoa eginez eta laguntza-premiak hautemanez.
- 2027tik 2028ra bitartean prestatutako erlijio anitzentzako guneak buruz zer emaitza dauden aztertzea, honako hauek barnean hartuta: erabilera-mailak, egokitzapen funtzionala, erabiltzaileen gogobetetzea eta handitzeko nahiz hobetzeko proposamenak.
- Zentro publikoetan erlijio-arreta emateko sistema sendotzea, prozedurak doituz eta kultu-ministroen direktorioa eguneratuz.
- EAEko hileta-arloko plangintzaren jarraipena egitea, barnean hartuta ebaluatzea ea praktikan aplikatu diren hilerrietarako, hileta-zerbitzuetarako eta erlijio-arrazoiengatiko errausketa-epeetarako irizpide komunak.

EZAGUTZA HANDIAGOA

- Erljio-aniztasunarekin lotutako eztabaidak kudeatzeko, aurrea hartzeko esparru bat diseinatzea (ahalik eta erantzun erreaktibo gehien saihesteko), hauek barnean hartuta: identifikatzea zer egoerak sor dezaketen gatazka edo polemika, ikustea zer jardunbide egoki aplikatu diren beste herrialde nahiz autonomia-erkidego batzuetan eta gure esparrurako biltzea, argudio instituzionalak prestatzea sail eskudunekin adostuta (posizionamendu instituzional argia eta koordinatua) eta aurretik prestatutako jarduerairizpideak definitzea.
- 2026-2029 Plan Estrategikoa ebaluatzea, Erljioen arteko Kontseiluarekin, adituekin eta udalerriekin batera, eta 2030-2034 aldirako gomendioak formulatzea.
- Erljio-aniztasunaren arlorako 2030-2034 Plan Estrategikoa diseinatzea, horretarako 2026-2029 aldiko emaitzak nahiz ebaluazioak eta eskumenen azterketa erabiliz.

GIZARTE-ERAGINA

- Erljio-aniztasunari buruzko komunikazio-estrategia bat garatzea, aurrea hartzeko diseinatutako esparruan oinarritua (ikus 2029ko "Ezagutza handiagoa" atala), barne hartuko dituena bai mezu giltzarriak, bai eztabaidak gertatzean komunikazio publikoak egiteko jarraibideak, bai sailetako komunikazio-zerbitzuekiko koordinazioa, eta bai komunikabideentzako nahiz herritarrentzako sentsibilizazio-ekintzak.
- Protokolo bat garatzea, kultu-zentroak irekitzea edo handitzea suertatzen denean jakiteko nola egin aurre auzotarren artean ager daitezkeen erreakzioei edo kontrako jarrerei (*NIMBY*), eta protokoloan honako hauek barnean hartzea: bitartekaritza-prozedurak, komunikazio-tresnak, udalerriekin koordinatuta esku-hartzeko irizpideak, eta gatazka handituz joatea prebenitzeko nahiz konfesio jakin batzuei buruzko aurreiritziei aurre egiteko orientabideak.
- Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, material pedagogikoak, baliabide didaktikoak eta irakasleentzako laguntza-gidak egitea, erljio-gertakariari eta sinesmen-aniztasunari buruzkoak (erljioen arloan alfabetatzea), hezkuntza-jardueretan, ikastetxeko proiektuetan eta eskolako bizikidetzaprogrametan sartzeko.



4. KONTSULTATUTAKO ITURRIAK

4.1. LANDA-LANA

ELKARRIZKETAK:

- Jordi Moreras, doktorea eta Antropologia irakaslea Rovira i Virgili Unibertsitatean (URV). Kataluniako Generalitateko Erlijio Gaietarako Idazkaritzan azterketen arduraduna izan zen. Lan akademiko ugari argitaratu ditu erlijio-aniztasunari buruz (2025/06/08)
- Gorka Urrutia, Soziologian doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria (2025/06/23)
- Arnau Oliveras eta Sergio Arévalo, AUDIR Associació UNESCO per al Diàleg Interreligiós i Interconviccional elkarteko zuzendarikideak (2025/06/30)
- Ramon Bassas, Kataluniako Generalitateko Erlijio Gaietarako zuzendari nagusia (2025/06/30)
- Llorenç Olivé, Kataluniako Generalitateko Erlijio Gaietarako Zuzendaritza Nagusiko teknikaria (2025/09/01)
- Inés Mazarrasa Steinkuhler eta Puerto García Ortiz, Fundación Pluralismo y Convivencia fundazioko zuzendaria eta zuzendariordea, hurrenez hurren; azken hori, gainera, Programa, Ikerketa eta Intzidentziako arduraduna ere bada (2025/10/29)

EZTABAIDA-TALDEAK:

- Erlijioen arteko gazteen elkarrizketa-taldea, 7 konfesiotako 11 pertsona (2025/09/25)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Erlijioen arteko Kontseiluaren aurretiko 2 saioetan aurkeztutako ekarpenak (2025/06/26 eta 2025/09/16)

MINTEGIAK:

- RE&TO Project "Religions & Tolerance at Local Level". *Seminar "Keys to the local management of religious diversity. Practical experiences in European cities"* [Webinar]. Citizens, Equality, Rights and Values Programme (CERV), Europako Batzordea (2025/09/23)
- *Diversidad religiosa. laicidad y religiones en Bilbao*. Prestakuntza-tailerra, Deustuko Unibertsitateko "Pedro Arrupe" Giza Eskubideen Institutuko Eduardo J. Ruiz Vieytez eta Gorka Urrutiak emana. Bilboko Udala, Giza Eskubide, Bizikidetz, Lankidetz eta Kulturartekotasuna Saila (2025/11/05).

4.2. BIBLIOGRAFIA

- Vitoria-Gasteizko Udala. (2024): Erljio Aniztasunari buruzko Azterketa Diagnostikoa Vitoria-Gasteizen (txostena). Elkarbizitza Behatokia; Pluralismo y Convivencia fundazioa; Gizagune fundazioa <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/57/81/95781.pdf>
- American Academy of Religion (2010): *The American Academy of Religion guidelines for teaching about religion in K-12 public schools in the United States*. AAR
- Astor, A., & Griera, M. (2016): *La gestión pública de la diversidad religiosa en España. Un modelo multinivel en transformación*. South European Society and Politics, 21(1), 117.-136. or.
- Berger, P. L. (2016): *Los múltiples altares de la modernidad. Hacia un paradigma del pluralismo*. Madril: Editorial Trotta
- Bilbao Urquidi, S. (2015): *El capital social de las minorías religiosas en el País Vasco*. Doktoregotesia, Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15950/TESIS_SAI0A_BILBAO_URQUIDI.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Bouchard, G. (2014): *La experiencia quebequesa, ¿un modelo útil para Euskadi?* [Bideoa - YouTube]. DeustoForum, Deustuko Unibertsitatea <https://youtu.be/jqSem768gWI?si=dBMWHLsvw4CXlg8k>
- Bouchard, G., & Taylor, C. (2008): *Fonder l'avenir : Le temps de la conciliation - Rapport abrégé*. Gouvernement du Québec. https://cdn-contenu.quebec.ca/cdn-contenu/adm/min/conseil-executif/publications-adm/publications-complementaires/RA_bouchard-taylor-abrege_2008_MCE.pdf
- Generalitat de Catalunya, Direcció General d'Afers Religiosos i Centre d'Estudis d'Opinió. (2020): *Baròmetre sobre la religiositat i la gestió de la seva diversitat 2020*. https://afersreligiosos.gencat.cat/web/content/04_diversitat-religiosa/barometre/Informe-de-resultats.pdf
- Eusko Jaurlaritz. (2015): *Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
- Griera, M. (2011): *Diversitat religiosa i món local: una mirada a Europa*. Diputació de Barcelona. https://www.diba.cat/documents/429042/149649665/Diversitat_religiosa_i_mon_local.pdf
- Griera, M. (2024): *Laïcitat o reconeixement? Debats actuals sobre la gestió de la diversitat religiosa*. En S. Morales-Gálvez, E. Riera Gil, L. Pérez Lozano & M. Sanjaume Calvet (Arg.), *Filosofia política. Una introducció* (449.-470. or.). Edicions UB
- Griera, M., & Martínez-Ariño, J. (2025). *Sociological perspectives on the governance of religion in contemporary Europe*. In E. Fokas & A. Giorgi (Arg.), *The Routledge Handbook of Religion and Politics in Europe*. Taylor & Francis
- Griera, M., & Nagel, A.K. (2018): Interreligious relations and the governance of religion in Europe: Introduction. *Social Compass*, 65(1), 3.-12. or.
- Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia (2024): *Zabaldu #2: Erljio-aniztasuna EAEn*. <https://www.ikuspegi.eus/eu/argitalpenak/ikerketak/ikusi/zabaldu-2/201/>
- Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia (2023): *Neurtu 2023: EAEko aniztasunari buruzko barometroa: erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak*. Ikuspegi. https://www.ikuspegi.eus/files/publicaciones/196_4.pdf
- Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia (2020): *Euskadiko erlijioen mapa*. <https://ikuspegi.eus/eu/datu-bankua/ikusi/euskadiko-erlijioen-mapa/18/>
- Intxausti, J. (2009): *Euskal erlijiotasunaz. Zenbait burutapen historiko*. Hemen. Erljio gogoetarako aldizkaria, (10/12), 7-22. <https://jakin.eus/show/546469f5a184212465dc5225eb7ab0203354a284>
- Martínez-Ariño, J. (2019): Governing religious diversity in cities: critical perspectives. *Religion, State and Society*, 47(4-5), 364.-373. or.
- Martínez-Torrón, J. (2014): *Religious freedom, church-state relations, and the role of the state in Spain*. Brigham Young University Law Review, 2014(3), 701.-732. or.
- Barne Ministerioa. (2024): *Informe sobre la evolución de los delitos de odio en España 2023*. <https://www.interior.gob.es/opencms/export/sites/default/galleries/galeria-de-prensa/documentos-y-multimedia/balances-e-informes/2023/Informe-evolucion-delitos-odio-Espana-2023.pdf>
- Moore, D. L. (2007): *Overcoming religious illiteracy. A cultural studies approach to the study of religion in secondary education*. Palgrave Macmillan
- Moore, D. L. (2015): Diminishing religious literacy: Methodological assumptions and analytical frameworks for promoting the public understanding of religion. In A. Dinham & M. Francis (Arg.), *Religious literacy in policy and practice* (27.-38. or.). Bristol University Press.
- Moreras, J. (2017): *La gobernanza de conflictos relacionados con la pluralidad religiosa* (Documentos del Observatorio n.º 6, ISSN 2254-2655). Observatorio del Pluralismo Religioso en España.
- Observatorio del Pluralismo Religioso en España (2011): *Guía técnica para la implementación y gestión de espacios multiconfesionales para la gestión pública de la diversidad religiosa*. https://www.pluralismoyconvivencia.es/wp-content/uploads/2018/12/Guia_Espacios_Multiconfesionales.pdf

Observatorio del Pluralismo Religioso en España (2016): *Manual para la gestión municipal de la diversidad religiosa* (2.ª ed. rev.). https://www.pluralismoyconvivencia.es/wp-content/uploads/2018/12/Manual_Gestion_Municipal_2%C2%AAedicion.pdf

Observatorio del pluralismo religioso en España. (2025): *Barómetro sobre religión y creencias en España (BREC 2025): Informe de resultados*. https://www.observatorioreligion.es/upload/05/37/Informe_Resultados_BREC_2025.pdf

Pew Research Center. (2023): *Spirituality among Americans*. <https://www.pewresearch.org/religion/2023/12/07/spirituality-among-americans/>

RELIGARE Project (2013): *Religious diversity and secular models in Europe – Innovative approaches to law and policy*. European Commission, CORDIS <https://cordis.europa.eu/project/id/244635/reporting/fr>

Nazioarteko adierazpenak

Nazio Batuen Batzar Nagusia. (1948). *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala*.

Nazio Batuen Batzar Nagusia. (1981). *Erlijioan edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena* (36/55 Ebazpena).

Nazio Batuen Batzar Nagusia. (1993). *Erlijio-intolerantzia mota guztiak ezabatzea* (48/128 Ebazpena).

Giza Eskubideen Batzardea. (1993). 22. *Ohar Orokorra: Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea* (18. artikulua).

Europako Kontseilua. (1950). *Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena*.

Europako Kontseilua. (2010). *Estatu kideentzako Ministro Batzardearen CM/Rec (2010)7 Gomendioa, Herritartasun demokratikorako hezkuntzari eta giza eskubideetarako hezkuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Gutuna dela eta*.

European Union. (2000). *Charter of Fundamental Rights of the European Union*.

ESLaren Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoa (ODIHR). (2007). *Toledo Guiding*

Legezko araudia

Espainia. (1978). *Espainiako Konstituzioa* (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa).

Espainia. (1980). *Erljio Askatasunari buruzko 7/1980 Lege Organikoa, uztailaren 5koa* (BOE, 177. zk., 1980ko uztailaren 24koa).

Ruiz Vieytez, E. J. (Arg.). (2010): *Pluralidades latentes: Minorías religiosas en el País Vasco*. Icaria Editorial. https://www.observatorioreligion.es/upload/04/16/Minorias_religiosas_en_el_Pais_Vasco_actualizado.pdf

Urrutia Asua, G. (2025): *La gestión pública del pluralismo religioso en el País Vasco*. In E. Relaño Pastor (Zuz.), *Diversidad religiosa y convivencia. Desafíos de la gobernanza contemporánea* (251.-271. or.). Aranzadi La Ley

Urrutia Asua, G. (2016): *Minorías religiosas y derechos humanos: Reconocimiento social y gestión pública del pluralismo religioso en el País Vasco*. Ediciones Akal.

Torradeñot, F. (2002): *Diálogo entre religiones: Textos fundamentales*. Editorial Trotta.

Torradeñot, F. (2025): *L'impacte social del diàleg interreligiós*. (Quaderns, 132) Fundació Joan Maragall.

Principles on Teaching about Religions and Beliefs in Public Schools.

NBE & UNESCO. (1994). *Declaration on the role of religion in the promotion of a culture of peace*. UNESCO.

ESLA/ODIHR & Europako Kontseiluaren Veneziako Batzardea. (2014/2015). *Guidelines on the Legal Personality of Religious or Belief Communities*.

Europako Parlamentua. (1999). *Erljioak kulturen arteko elkarrizketari egiten dion ekarpenari buruzko Adierazpena*.

UNESCO. (1995). *Declaration of Principles on Tolerance*.

UNESCO / Nazio Batuen Erakundea. (2001). *Final Document of the International Consultative Conference on School Education in relation to Freedom of Religion or Belief, Tolerance and Non-Discrimination*.

United Nations. (1966). *International Covenant on Civil and Political Rights (ICCPR)*.

Euskal Autonomia Erkidegoa. (2023). *5/2023 Legea, apirilaren 6koa, Kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzkoa* (BOE, 177. zk., 2023ko uztailaren 26koa).





#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO